

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
ELIZBARRUTIAK**

FEDEA GAUR EGUN TRANSMITITZEA

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA**

2001, GARIZUMA–PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1-2. z.)

LEHENENGO ZATIA

I.- TRANSMISIO SOZIO-KULTURALA KRISIAN (3-4. z.)

- Eragina erlijioan (5-6. z.)

II.- KRISIA FEDEAREN TRANSMISIOAN (7. z.)

- Familian (8-9. z.)
- Gazteen artean (10. z.)
- Irakaskuntzan (11. z.)
- Katekesian (12-14. z.)

III.- EGOERA HONEN AURREAN (15-16. z.)

BIGARREN ZATIA

- Sinetsi eta fedea transmititza (17. z.)

I.- ZER DA JAINKOAGAN SINESTEA?

- Sinestea ez da jakitea, baina... hori ere bai (18-19. z.)
- Sinestea bilatzea da (20. z.)
- Sinestea aurkitzea da, edo hobeto esanda «elkar aurkitzea» (21-22. z.)
- Sinestea fidatzea da (baita arriskatzea ere) (23-24. z.)
- Sinestea onartzea da (25-26. z.)
- Sinestea fedea besteekin bizitzea da (27. z.)
- Sinestea konprometitzea da (28. z.)

- Sinestea gurtzea da (29. z.)
- Sinestea maitatzea da, zerbitzatzea (30. z.)

II.- ZER DA FEDEA TRANSMITITZEA?

- Fedea transmititzea kristau-bizitzaren testigantza hurbila eskaintzea da (31. z.)
- Fedea transmititzea galderak sortzea da (32. z.)
- Fedea transmititzea nork bere esperientzia pertsonala kontatzea da (33. z.)
- Fedea transmititzea Jainkoaren egiazko aurpegia ezagutzera ematea da (34-35. z.)
- Fedea transmititzea askatasuna errespetatzea da (36. z.)
- Fedea transmititzea salbamen-bide bezala aurkeztea da (37. z.)
- Fedea transmititzea elkarrizketarako gai egitea da (38. z.)
- Fedea transmititzea Elizaren fedea proposatzea da (39. z.)
- Fedea transmititzea bilaketan bidelagun izatea da (40-41. z.)

HIRUGARREN ZATIA

- Fedearen transmisioan denok gara erantzule (42. z.)

I.- FEDEAREN KOMUNIKAZIOA FAMILIAN (43. z.)

- Fedeari buruzko elkarrizketa gurasoen artean (44. z.)
- Seme-alabak fedean heztea (45-47. z.)
- Seme-alabak hazten direnean (48-49. z.)

II.- FEDEA TRANSMITITU INGURUMEN DESBERDINETAN (50. z.)

- Bizi-testigantza pertsonala (51-52. z.)
- Geure itxaropenaren arrazoia eman (53-54. z.)

III.- ELIZ ELKARTEAREN EKINTZAK

- Ebanjelioaren misiolari-iragarpena (55. z.)
- Fedearen bila diharduenari harrera ona egin eta ibilbidean laguntzea (56. z.)
- Kultura ebanjelizatzea (57. z.)
- Kristau-sarbidea eta katekesia (58-61. z.)
- Irakaskuntzaren munduan (62-64. z.)
- Gazteen pastoraltza (65-67. z.)
- Fedearen ospakizun eraberritua (68-69. z.)

AMAIERA (70. z.)

SARRERA

1. Duela lau urte idatzi genuen Pastoral Idazkiaren¹ asmoa, sinestedunei, gure kulturako eta gure garaiko baldintza jakinetan, fedean bizitzen eta hazten laguntzea zen. Konturatzen ginen, inguruko giroak hainbat froga eta kontraste jartzen dizkiola gure fede-bizitzari; eta honek guztiak prestaketa eta sendotasun handiagoa, eta kristau-nortasun zehatzago eta koherenteagoa eskatzen dizkie fededunei.

Orain, fedearen transmisio edo zabaltzean jartzen dugu geure arreta. Beren fedearekin konprometitutako fededun askoren antzera, geu ere arduratuta gaude fede hori sakontasunez ezagutu edo bizi ez dutenei transmititzeko, bereziki belaunaldi gazteei transmititzeko, gaur egun nabaritzen ditugun arazoengatik.

Sinestedunak indarberritu eta suspertu egin nahi ditugu, fedearen mezulari eta testigu bezala duten erantzukizunean. Argibide bereziren bat edo beste eskaini nahi diegu apaiz, guraso eta hezitzaileei, haur eta gazteei fedea transmititzeko bokazio eta misioan. Sinesmenaren bila dihardutenei eta bide horretan laguntzaile dituztenei laguntzen saiatuko gara.

2. Gure Idazkia hiru zatitan egituratzen dugu. Hasieran, bizi dugun egoeraz jabetu nahi dugu, ingurumen horretan egin behar baitugu fedearen zabalketana. Gaurko egoera soziokulturalari begiratzen diogu, bereziki balioen zabal-kundeari jartzen dizkion zailtasunei, eta fedearen komunikazioak gaur egun dituen zailtasun berezi batzuk deskribatzen ditugu.

Bigarren zatian, fedearen transmisio edo zabaltzearen izaeraren inguruko gogoeta eragiten dugu, bi galdera abiapuntutzat hartuz: Zer da sinestea? Eta zer da fedea zabaltzea?

Eta hirugarren zatian, hainbat pastoral jardunbide proposatzen dugu, sinestedunek egoera desberdinetan eta parte hartzen duten harreman desberdinetan fedea zabal dezaten. Era berean, artzain bezala, geure Elizetan misio honen garapenerako bultzatu nahi ditugun zerbitzuetako batzuk aipatzen ditugu.

¹ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia.

LEHENENGO ZATIA

I.- TRANSMISIO SOZIO-KULTURALA KRISIAN

3. Gutariko askok, bizi dugun sasoi honetan fedea transmititzeko, bereziki belaunaldi gazteenei transmititzeko, ditugun zailtasunak, zabalagoa den gizarteko krisiaren barnean daude. Gure garaiotan bereizgarri diren gizartegertakarien artean, gizabanako batzuegandik besteengana, gizarte-talde batzuetatik besteetara eta, bereziki, belaunaldi batzuetatik besteetara, balioak, irizpide edo erreferentziak, tradizioak edo ohiturak transmititzeko edo helarazteko krisitzat jo dezakeguna antzematen dugu.

Ez gara azterketa sakonak egiten hasiko, baina azken hamarkadetan gertatzen ari diren era eta maila guztietako aldaketen zailtasun eta arintasunarekin batera, krisi honen jatorria, zabalatasuna eta iraunkortasuna ulertzen lagunduko diguten osagai batzuk nabarmendu ditzakegu.

Gaur egun gehienok presaka bizi gara, eta eguneroko bizitzan beste lagun batzuekiko harremanak ugaltzen badira ere, horiek, askotan, azaleko tratu hutsen geratzen dira, inolako aztarnarik utzi gabe urtzen den sakontasunik gabeko harreman batean. Eguneroko bizitza, elkarren arteko loturarik gabeak diren, eta fisikoki ere elkarrengandik urrun dauden ekintza-esparru desberdinetan sakabanatzen da. Honek, integrazio eta koherentziarik gabeko eginkizunetan jardun beharrean aurkitzen den gizakiaren zatiketa eragin dezake.

Ideologi, kultur eta erlijio-aniztasuna gure gizarte-egoeraren ezaugarria da, eta errespetuzko eta tolerantziatzko jarrera eskatzen du. Hala ere, batzuetan, gizabanakoaren eskubideen baieztapena, besteen eskubide eta beharrianenganako axolagabekeria praktikozko jarrera indibidualistarekin nahasten da. Aldi berean, ekonomi, gizarte eta kultur globalizazioaren eraginpean, herri edo gizatalde desberdinen berariazko nortasun-ezaugarriak ezabatu egiten dira, eta antzinako tradizioak, beren jatorrizko adiera eta balioa kendurik, oroitzapen kostunbrista huts bihurtzen.

4. Tradizioz funtsezko balioen zabaltzailatzat hartu izan den familiak ere aldaketa sakonak bizi ditu azkenaldian bere egituran eta, batez ere, lagunarteko harremanetan. Familiako lokarri eta harremanak hobetu egin dira berezkotasunari eta askatasunari dagokienez, baina galdu egin dituzte trinkotasuna, sakontasuna eta egonkortasuna. Onerako eta txarrerako, familiako kide bakoitzak autonomia eta burujabetasun handiagoa du umetatik bere aukera eta erabakietan. Kideek biziki onartzen eta baloratzen duten arren kidetasun-esparru hori, familiak ez du eurengan beste sasoi batzuetako eragin erabakigarriarik, batez ere erantzukizunez lantzen ez badira familiaren ahalbideak beste eragin-eremu batzuen aurrean.

Krisiak eragina du, baita ere, irakaskuntza erakundeek tradizioz izan duten gizarte-zereginean. Gaur, zorionez, gizarteko sektore zabalak era bateko eta beste hezkuntza-mailetara, baita goi mailetara ere, iristen diren arren, nabaria da eskolaren eta unibertsitatearen eragina gutxitzen doala, beste erakunde batzuen pisuaren aurrean, gure garaiko kulturaren zabalkundean.

Gizarte-komunikabideen garapena ikusgarria izan da, eta indar erabakigarri gertatzen dira iritzi publikoaren arreta eta interes-gune aldakorren aukeraketa eta aurkezpenean. Hedatze azkarra dute, deialdirako ahalmen handia, irizpideak, jarrerak eta jokamoldeak moldatzeko eragin itzela, eta gizarteko sektore zabalei funtsik gabeko erreferentzi ereduak eskaintzen dizkiete, bereizketarik egin gabe.

Eragile hauek guztiak pentsaera-aldaketa izugarriaren ezaugarri eta,aldi berean, eragile gertatzen dira aurrekoengandik eta tradizioz jasotakoaren baliorekin alderatuz gero. Aurreko sasoiaren, iraganeko ondarea ukiezintzat hartzen zuten. Gaur ondare hori zalantzan jartzen da, iraganetik datorrelako, hain zuzen ere. Gure gizarteak tradizioa mesfidantzaz hartzeko joera du, eta berrikuntza akritikoki bereganatzekoa.

Eragina erlijioan

5. Gure sasoiaren kulturak pertsonaren eta elkartearen bizitzako alderdi asko gizatasunez betetzen dituzten balio garrantzitsuak eskuratu eta bereganatu ditu. Dena dela, berriaren erlijio-balio eta erreferentzien zabalkundearen krisian eta, beraz, fedearen komunikazioan, aparteko zerikusia duten eragile bereizgarriak antzematen ditugu kultura horretan.

Adin eta egoera desberdinetako gizon eta emakumeengan bat-bateko bizi-erak nagusitzen da, berehalako orainean oinarritutako biziera. Ekintza edo erabaki pertsonaletan ez da kontuan hartzen epe luzerako geroko ikuspunturik. Eskura dugunaz, aurre-aurrean daukagunaz arduraturik bizi gara, eta jarrera honek blokeatu egiten du transzendentziarako edozein asmo. Azalekoari begira egoteak eta buru-belarri eguneroko bizitzako ekintza eta auzietan murgilduta ibiltzeak, itota uzten ditu biziaren beraren zentzuari buruzko galderarik sakonak. Biziera hau dela eta, askok eta askok, gaur egun, ez du ezertatik eta inoren eskutik salbatua izateko beharrik sentitzen, eta Jainkoaren aipamena beren askatasuna ulertzeko eta gauzatzeko erarekin zerikusirik ez duen zerbait gertatzen zaio.

Gaurko jakintza zientifiko-teknikoak eraginkortasun eta erabilgarritasunagatik ziurtaturikoa bakarrik jotzen du baliozkotzat, eta horrelako jakintzaren garapenaren gainean jasotako zibilizazioan parte hartzen du gure gizarteak. Tes-tuinguru honetan, askorentzat, jakite erlijiosoa ez da batere fidagarria, eta doakotasun-sena arraroa gertatzen da. Beste alde batetik, era bateko eta besteko eskaintzen artean gustukoena aukeratu ohi den kultura kontsumista honetan, ez da arraroa sinkretismoa, erlijio-aniztasunera moldatzeko era akritiko gisa.

Azken urteetan asko ugaritu dira «misterioen» munduarekin lotuta dauden, eta erlijio-izaerako kezka edo sentsibilitateekin nekez nahasi daitezkeen era askotako adierazpenak. Badira beste erlijio-erak batzuk transzendentea eta zehaztu gabea den «zerbaiten» erreferentzia nolabaitekoa egiten dutenak; hauek ere ezin dira Jainko pertsonalaganako fede-adierazpen bezala ulertu.

6. Orokorrean, erlijioaganako eta, bereziki, kristautasunaganako axolagabe-keria sumatzen dugu herrikide askorengan. Beharbada, teologo frantses batek² bere herrialdeaz esaten duena geure egoeraz esan dezakegu: «Gure garaikideetako askok nolabaiteko higuin espontaneoak diote kristautasunari, bereziki kristautasun katolikoari, besterik gabe erlijio nagusia izan delako katolikoa..., eta gure kultura, gure izaera espirituala eta morala, eta azken batean gure baloreak moldatu dituelako; bere aginpidea ezarri duelako ohitura eta jokabideei buruz. Hortik dator bertatik askatzeko eta beste tokiren batean bilatzeko beharra, kristautasunak gaur ezer esango ez baligu bezala».

Beste alde batetik, zera onartu behar dugu: erlijio-ikuskerak desegoki batzuen eta iraganeko historia pertsonalei loturiko Jainkoaren irudi itxuragabetu batzuen gaitzespenak, fededun eta artzain batzuek beren kristau-bizitzan eta konpromisoan koherentziarik ez izateak, erakundeek –eta gure kasuan Elizak gaurko gizartean duten estimu eskasak, eta erlijio– eta eliz hizkuntzaren moldatze-arazoek edo ulergaitzasunak ere, pisu eta eragin handia dutela fedearen zabal-kundean gaur egun nabari ditugun zailtasunetan.

II.- KRISIA FEDEAREN TRANSMISIOAN

7. Balio eta erreferentzien transmisioari buruzko gizarte-krisi zabal honen barruan, gure Pastoral Idazki honetan fedearen *komunikazioak* berekin dituen zailtasunetan jarri nahi dugu arreta. Gutariko gehienok, era batera edo bestera, parte hartu ohi dugun adierazpen eta egoera zehatz desberdinetan aurki ditza-kegu aipatutako zailtasun horiek.

Hainbat fededun konturatzen da gure garaiko gizarte-giroan sinestedun bezala bizitzeak dakartzan zailtasunez, fedearen erantzuletzat hartzen du bere burua eta fededunari dagokion moduan eta konprometiturik bizi da. Berauen fedea gaur egun lehen baino askeagoa eta sendoagoa da frogan aurrean. Ez dira fedez lotsatzen, kristau-testigantza ematen dute apaltasun eta zintzotasunez, eta beren itxaropena aitortzen dute lagunarteko harremanetan eta gizarteko konpromiso askotan. Baina, aldi berean, beste askok, aurrekoak baino ugariago, familian bertan edo lagun-taldean elkarrekin bizi direnei esperientzia bezala adierazteko eta eskaintzeko ausardia edo gaitasunik gabe bizi du fedea.

Ez dira gutxi beren sinesteak, inguruan sumatzen duten giro hotz eta aurkakoaren aurrean, bihotz-barruko isiltasunean defentsa-jarreran bizi dituzte-nak. Atzera-egite horrek kontzientziaren barnekotasun pertsonalean gorderiko zerbait bihurtzen du fede-bizitza, sinestedun izatea era anonimoan bizitzeko lagunarteko eta gizarteko era guztietako harremanetan. Horrela, norbere fedearen testigantza adierazpena kristau-elkarteko bizitzako gune babestu eta beroe-tara murrizten da. Makina bat kristau lotsatuko litzateke gaur egun jendaurrean kristau bezala ezagotua izateaz.

² Bernard Sesboué, *Creer*, San Pablo argit. (Madril 2000), 10. or.

Familian

8. Famili bizitzak eraldaketa esanguratsuak izan ditu azken urteotan. Guraso asko gogotsuago arduratzen eta konprometitzen da bere seme-alaben hezkuntzan, baina zailtasunak ditu norberaren eta gizarte-bizitzarako erreferentzia garrantzitsutzat jotzen dituen balore eta irizpideak seme-alabei komunikatzeko. Guraso sinestedunek ere zailtasun bera bizi dute beren seme-alabei fedea komunikatzekoan.

Kasu batzuetan, besteen askatasunari zor zaion errespetuak eragindako sentsibilitate zorrotzak honelako ustea sortzen du gurasoengan: fedea proposatzeak edota beren seme-alabei fede hori izateko dei egiteak ezeztatu egiten duela askatasun hori. Ez dira konturatzen, alderantziz, askatasunez hautatzeko aukera, gaitasun handiagoz nor bere kabuz erabakitzeko aukera, proposamena jaso ondoren bakarrik bihurtzen dela egiazko eta oso. Jarrera hau ikusten da guraso batzuek seme-alabak fedean hezteko erantzukizunaren aurrean duten jokaeran.

Guraso askorentzat, erlijio-jarduera eta ohitura moralak funtsezko bide dira fedearen zabalkunderako eta, benetan, seme-alabei irakasten ahalegintzen dira. Baina gaur egun, zer esan eta zer egin ez dakitela eta gainezkatuta daude, erantzuteko gaitasunik gabe, gazteenek erlijio-jarduera alde batera utzi dutelako eta kristau-printzipio moralen aurrean kontrako jarrera dutelako. Egoera honetan, nostalgiaz begiratzen diote iraganari, eta etsipenez bizi dute oraina.

Familia askotan, ez zaio garrantzirik ematen erlijioari, kristau-bizitza lantzeari ez zaio baliorik ematen eta, zehazki, Elizarekiko kidesun-loturak makalak dira. Duela urte batzuk, arduraturik azaltzen genuen errealitate hau bera: «Gaurko familia haustutzen joan da, eta urte gutxitan galdu egin du gure artean izan duen erlijiozko mamia eta kristau-educia. Gaur, eskuarki, familia ez da 'fede-eskola', baizik eta gurasoengandik seme-alabetara erlijioarekiko hoztasuna eta isiltasuna helarazten den leku da»³.

9. Gizon eta emakume heldu asko, familiako aita eta ama direnak, ez dira batere seguru sentitzen fedearen bizipen pertsonalean. Kezkaturik aurkitzen dira inguruan sumatzen dituzten aldaketengatik, eta baliabiderik gabe, egoera berriei moldatzeko eta gaurkotutako fedea beste batzuei helarazteko. Beren fedearen adierazpen pertsonalerako hizkuntza gaurkotu eta egokirik ez izatea oztopo gaindiezina gertatzen da, baita etxeko harremanen gertueneko esparruan ere.

Hogeita hamar eta berrogeita hamar urte bitarteko aita eta ama ugari, hainbat arrazoiengatik, ez da arduratu izan seme-alabei kristau-fedearen lehen hastapenak emateaz; honek gertakari soziologiko berria sortu du gure artean: seme-alaben erlijio-sozializatzerik eza. Pastoral erronkarik nagusienetarikoa da egoera hau gaur egun gure Elizarentzat.

³ *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*, 1994.ko Pazkorako Pastoral Idazkia, 84. zenb.

Beren bizitza zentzuz bete izan duen fedea estimatzen duten nagusienek ezin diete aurre egin fede hori ingurukoei helarazteko zailtasunei. Erabat desberdin bizi eta pentsatzen duten familiako kideei ulertzeko eta hauekin bat egiteko ezintasunetik, Jainkoagana jotzen dute otoitzean, euren senitartekoentzat –bihotzeko maitasunik xamurrenaz– fedearen dohaina eskatuz.

Famili giroan zailtasun hauek bizitzea, norberaren fedea arazteko ahalegiaren abiapuntua gertatzen da batzuentzat, fede hori apaltasunez onartuz, fede hori ulertzeaz eta era konprometituan eta benetakoa bizitzeaz arduratuz, beste fededun batzuekin konpartituz eta fede berorren testigantza egokia emanez. Guraso batzuek gogotsu saiatzen dira beren seme-alabak fedean hezteko prestaera lortzen; beste batzuek, beren seme-alaben fede-heziketan eskuhartze aktiboagoa izateko, kristau-elkarteko katekista izateko eskaintzen dituzte beren buruak eta horretarako prestatzen dira, beren kristau-bizitzan gogotik sakonduz. Beste askok, fede-ikuspegitik besteen alde zerbitzu egiteko konpromisoak hartzeko, beren kristau-bizitzan eta Jesusen ikasle izatean sakontzen dute.

Gazteen artean

10. Gazteen munduari begiratzen diogunean antzematen dugu gordintasunik handienaz geure fedea beste batzuei transmititzeko zailtasuna. Gazteriaren zati handi bat, egungo gizartearen eta kulturaren baldintzapean, ikasketan edota lanean, familian eta aisialdian beren harreman eta ekintzek eskatutako jarraibideen arabera bizi da. Bizitzaren zentzuari buruzko galdera nagusiak egin gabe saiatzen dira zatikatutako errealitate honi erantzuten; dirudienez, bizitzaren zentzuari buruz galdetzeak ez du eraginik beraiengan, beharbada interes handiagoa sortzen dielako berehalakoak. Beren irizpide pertsonalak eratzea lor dezakete, baita jokoera etikorako arauak hartzea ere, baina ez dirudi Jainkoa aintzat hartzen dutenik ere. Gure sasoiko gazteriaren gehiengoarentzat, erlijioari buruzko kezkek ezezagunak edota bitxiak dira.

Gazte batzuek, familian eta elkartean kristau-heziketa jaso ondoren, kristau-fedearen ospakizunean parte hartzea alde batera uzten dute normalean eta, horrela, areagotu egiten dute fedetik eta erlijio-bizipenetik aldentzea, itxuraz inolako trauma edo krisirik bizi gabe. Beste batzuk, azken hamarkadetan, kristau-tradizioarekiko hausturan hazi dira eta, hainbat aldiz, tradizio horren funtsezkoena ere ez dute ezagutzen. Eliza ez dute beren gauza bezala hartzen, urrutiko eta interesik gabeko zerbait jotzen dute.

Gazteek, kristau-elkarteko jardueretan esku hartzen dutenak barne, ilusioz bilatzen dituzte ekintzarako esparruak, berezko emankortasun eta eskuzabalatasunez, baina sarritan uko egiten diote, beren izateari buruz funtsezkoak diren auziei, zehazki fedeari lotutakoei, aurre egiteari. Badira, ordea, fedearen bila dabilzanak ere, fediaz interesatzen eta konprometitzen direnak, fedeatxikimendu eta ulermenean hazten saiatzen direnak, eta bizitzaren eta Ebanjelioaren jarraibide eta eskakizunak zintzoki uztartzen ahalegintzen direnak. Hauek bultzada berritzailea gertatzen dira ezagutzen edo laguntzen dituzten helduen fede-bizipenerako, baita eliz elkartearentzat berarentzat ere.

Irakaskuntzan

11. Ikastetxeek laguntza esanguratsua ematen diote, maila desberdinetan, haur eta gazteen sozializatzeko-prozesuari. Gurasoen eta gizartearen konfiantza dute kulturaren balio nabarmenenak zabaltzeko egitekoan, ikasleen gaitasun fisiko, intelektual eta moralak mailaka garatuz. Normala da, hezkuntza-prozesu horretan gizakiaren erlijio-alderdia sartzea eta gure kulturaren, zehazki, kristau-fedearen tradizioa ere sartzea.

Guraso askok kristau-hezkuntza emango dietenaren ziurtasuna bermatzen dioten ikastetxeen esku uzten ditu seme-alabak. Batzuetan, erantzukizun hau beste batzuen gain utzirik, beraiek zuzenean parte hartu beharrik ez dutela pentsatzen dute. Gaurko gizartean ikastetxeek ikasleen garapen pertsonalari eskain diezaioketen ekarpena guztiz mugatua eta baldintzatua dago era bateko eta beste eraginengatik, batez ere hezkuntza moral eta erlijiosoari dagokionez. Bestalde, hezkuntza-sisteman gaur egun ez da oinarri eta balio etiko edo moralen heziketarik garatzen, erlijio-irakasgaietan izan ezik.

Haur-hezkuntzan, lehen-hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako zati batean bakarrik dago arautua eskolako erlijio-irakaskuntza; erlijio-kultura giza zientzien barnean integratzearen aldeko apustua da eskolako erlijio-irakaskuntza, eta ez da katekesiarekin nahastatu behar. Heziera horretan parte hartzen dutenek berori askatasunez hautatu izana, hori da beronen baldintza; zeregin horretan buru-belarri diharduten eta baliabide pedagogiko gaurkotuak erabiltzen dituzten irakasleak ditu. Irakaskuntza horretan arretaz jarduten dutenei, kristau erlijio-tradizioaren jakintzak eskuratzeko eta berariazko balio eta jarrerekin jabetzeko aukera ematen die. Baina, zenbait alditan, erlijio-kulturak garai honetako zientzi eta gizarte-jakintzen artean duen gutxiespena jasaten du. Heziera hori, bereziki gaurko egoera honetan, nahiz eta garrantzitsua izan, ez da aski fedea transmititzeko.

Katekesian

12. Katekesia fedearen ezagueran eta bizipenean sakontzeko prozesua da. Hasi batean Jainkoaren agerkunde eta gure bizitzarako bateratze-gune bezala ezagututako Jesu Kristoganako funtsezko atxikimendutik garatzen da katekesia. Haur, gazte edota helduentzako katekesi-ibilbideak bereizten dira, katekesi-prozesu horietan parte hartzen dutenen arabera.

Azken hamarkadetan, kristau-elkartearen katekesiek hobetu egin dute mezuaren azalpena, suspertu otoitza eta hitza entzutea, kristau-bizitzarako ereduak proposatzen dituzte eta Jesu Kristori jarraitzeko deia luzatzen. Ibilbide guztietan badituzte katekista ugariren eskaintza eskuzabala eta eraberrituak izan diren lagungarri onak. Ibilbideotan, fedean hazten doazen eta kristau-heldutasun duinera iristen ari diren haur, gaztetxo, gazte eta helduek hartzen dute parte.

Katekesian haur eta gazteekin lan egiten dutenek, prozesu hauekin sustatu nahi den kristau-sarbidetari eraginkortasunez laguntzeko aurkitzen dituzten zailtasunak nabarmentzen dituzte. Zailtasun horien jatorrian, katekesi-ibilbidearen

eta sakramentuen ospakizunaren artean izan behar duen lotura dago. Sakramentua ospatzean Elizak fedea eskatzen du aldez aurretik, eta fedea adierazi eta gehitu egiten du sakramentuaren bidez; eta, ondorioz, heziketa-ibilbide serioa eskaintzen du; sakramentua hartzera datozenetako askok, ordea, sakramentuerriroa da, batez ere, nahi dutena, oraindik ere duen gizarte-ospeagatik. Elizaren eskaintza eta sakramentuak hartzera hurbiltzen direnen gurariak bat ez etortzeak arazo gogorra sortzen die artzainei eta katekistei.

13. Iraganean erlijio-heziketa jaso izan duen eta eliz jardueran bizi izan den arren, kristau heldu ugari ez du fede-heldutasunik, eta azkenaldiko gizarte eta kultura-aldaketa sakonek eraginiko nahasmena bizi du. Batzuek, beren fede-bizitza sakontzeko eta berriztatzeko, katekumenotza-erako, otoitzerako eta kristau-heziketarako taldeen aukerak aprobetxatzen dituzten bitartean, beste batzuk, askoz ere ugariagoak, iraganeko hondarrei moteltasunez eutsiz bizi dira, beren sinestedun-bizitza bizkortu ezinik eta asko eta asko erlijio-utzikerian eta axolagabekerian jausten dira.

Erljio-heziketan, hainbat kasutan, eduki-multzo korapilatsua jaso izana eta fedea jakintza edota ikasketa gisa hartu izana, eragozpen gertatu dira erlijio-esperientzia apala bizi dutenentzat. Elizaren eta kristau-bizitzaren azkenaldiko bilakaerak zorabiatu egiten ditu, eta beren fedearen eta bizitzako beste alderdi batzuen arteko eten praktikoa, zatiketa nabaritzen dute. Ez dute sumatu ere egiten, zer-nolako egokiera eskain diezaiekeen katekesi-ibilbidean parte hartzeak, beren fede-bizitza pertsonalerako laguntza eta fedea besteei helarazteko bultzada bezala. Kristau-elkarteko zenbait esparrutan badira fedea aukeratuen elite batentzat dela eta apalei galarazia dagokiela uste dutenak, horiek jotzen baitituzte fede-gaiak txukun ulertu, adierazi eta bizitzeko gai. Baina Jesusen jokamoldearen berri ematen diguten ebanjelioek ezeztatu egiten dute goitik behera horrelako pentsaera eta jokaera.

14. Bestalde, gero eta gizon-emakume gehiago dira gure artean bizitzako arazo nagusiei buruz beren buruei zintzotasunez galderak egiten dizkietenak eta fedea aurkitzeko ahaleginetan saiatzen direnak; baina askotan ez dakite nora jo laguntza eta aholku bila. Sarritan, beraiek planteatu ere egiten ez dituzten auziei dagozkien erantzunak jasotzen dituzte, aldez aurretik eraturako erantzun azkar eta zailak. Zail egiten zaie sinestedun askorengandik, baita artzain askorengandik ere, astiro, elkarrizketa-giroan eta zerbitzu-jarreran eskainitako harrera eskuzabala aurkitzea. Azken batean, honelakoa da hauek behar duten laguna: beraien bilaketa serio hartzeko gai izango dena, beren galderak apaltasunez entzuten dakiena, beren kezkak ezagutu eta federako bidean zuzenduko dituen.

III.- EGOERA HONEN AURREAN

15. Balio eta erreferentzien zabalkundearen gizarte-krisiak zera adierazten digu garbi-garbi: betiko gure fedea berriro pentsatu, ulertu eta formulazio berri batean eman beharra daukagula alderdi askotan gaurko baldintzen argira. Tentuz hartu beharreko unea bizi dugu; izan ere, batzuek lehen eztabaidarik gabe onartzen zutena arbuiatu egiten dute orain, eta guztiz onartezina jotzen dute gaurko errealitatearen aurrean. Beste batzuk, alderantziz, itsu-itsuan atxikitzen

zaizkie iraganeko azalpenei, munduaz duten ikuskera zaharkituan ezin dituztelako ulertu ez onartu egoera berriak. Ez ote da, gero, iritsi Karl Rahner teologoak, duela hamarkada batzuk, iragartzen zuen unea eta egoera?: «Biharko gizaki erlijiosoa mistikoa izango da, esperientziaz zerbait bizitzera iritsi den pertsona, alegia, edota ezingo da erlijiosoa izan; hain zuzen ere, etorkizunean erlijio-bizitza ez da iritzi bate-bera izanez, jendaurrean eta gauzarik normalena bezala elkarrekin bizi daitekeen zerbait izango»⁴.

Eliza biziki ahalegindu den arren kristau-elkarteak ebanjelizatzen, asko dira gure inguruan, baita elkartean bertan ere, fedearen berririk ez dutenak, fedea bizitzarako funtsezko ardatz bezala ikusten ez dutenak edota Elizatik aldentzen ari direnak. Baina badaude heldutasun-bidean aurrera egin beharra nabari duten kristauak ere, bizitza pertsonal eta sozialeko gaurko koordenatutan kokatutako fedea berreskuratu nahi dutenak, fede horren arrazoibidea beste batzuei eman ahal izateko. Fede-bizitza sendoa berregin nahi dute, gure garaiko gizon eta emakumeen poz, tristura eta itxaropenei moldaturik bizitzearen erronkari aurre egiteko.

16. Atsekabez ikusten dugu, fededunenganako eta erlijioaren eta fedearen inguruko gauza guztienganako gizarte-axolagabekeria nagusitzen ari den bezala, kristau batzuek halako jarrera «axolagabea» daukatela, bizitzaren erlijio-ikuskera bera ez dutenekiko. Gaurko egoeraren aurrean sentiberatasun eta ardura eskasa daukate, eta kezka gutxi erakusten dute beraiek daukatena beste batzuei helarazteko. Fedea ez dute bizi besteei helarazteko gauza baliotsu bezala. Zinez zalantzan jarri beharra dago, bere fedea besteei komunikatzera bultzatzen ez duen sinestedunak bizi duen erlijio-esperientziaren kristau-egiartzotasuna.

Hau da eliz eremu desberdinetan antzematen duguna: alde batetik, etsipez jantzitako ezkortasuna, gaur egun fedea zabaltzeko zailtasunen aurrean; eta, bestetik, konfiantzazko jarrerak, egoera honetako frogak eta bilaketetan araztua izango den kristau-bizitzaren benetakotasun eta sakontasunezko geroan.

Batzuk, gaurko egoera honetan, zerbaiten bila dabilta, bizitzaren zentzua eta fedearen osotasuna aurkitzeko; benetakotasunaren bila dabilta eta erritoak eta arauak ez dira nahiko beraiantzat. Horixe aurkitu beharko lukete fededunengan eta Jesu Kristoren Elizan.

Sinestedun bakoitzarentzat eta gure Elizarentzat, beraz, berriro ere galdera hau egiteko unea da: zertan sinesten dugu? Errito, arau eta konpromisoen azpian dagoen fedea berreskuratzeko unea da, gure fededun-bizitzaren alderdi benetako eta sakonenean dagoen misterioaren zentzua berpizteko unea. Gaurko munduan fedearen testigu eta mezulari bezala izan behar dugun lekua berriro hausnartzeko unea da.

⁴ E. Klinger-ek bildutako oharra, *La teologia spirituale di Karl Rahner*, Messaggero argit. (Padua 1998), 75. or.

BIGARREN ZATIA

Sinetsi eta fedea transmititzea

17. Gure kristau-fedea pozez bizi dugun fededunok jakin badakigu beste batzuek, familian eta Elizan, hainbat bidetatik, fede hori aurkitzen eta fede horretan hazten lagundu digutela. Eskerrik beroen eta zintzoenak ematen dizkiegu, daukagun gauzarik baliotsuena eman digutelako. Baina gure fededun-esperezian sakonduz, fedea guretzat Jainkoaren dohain, grazia dela ikusi dugu. Badakigu, geure askatasunetik, askotan ahalegin neketsuz eta zailtasunez, eta besteen laguntzarekin iritsi garela fedearen dohaina onartzera eta geureganatzera. Baina ziur gaude, batez ere, beste fededun batzuen bidez eta geure barne-barneko izatetik, Berarekin pertsonalki topo egitera dei egiten zigun Hura dela ezagutu duguna: Jainkoa bera.

Horregatik, zera aitortzen dugu: fedea transmititu edo besteei helaraztea, funtsean, sinestedun eta Elizako kide izatetik gure laguntza eta esperientzia beste batzuei eskaintzea dela, beraiek ere, Jainkoaren graziak bizkorturik, beren kabuz eta beren askatasunetik federa irits daitezten. Fedea transmititzea, beraz, besteei federako bidean jar daitezten laguntzea da, Jainkoarekin pertsonalki elkartu daitezten bideak prestatzea.

Besteen fedeari eskaintzen diogun zerbitzuak ez du zuzeneko eta berehalako ondorio gisa bestearen fedezko erantzuna izan ohi; hori ez da beharrezkoa ere. Halere, fedea zabaltzeko egitekoan ez gaude bakarrik; ez gaude geure indar soilen mende utziak edota geure gaitasun edo sormenaren euskarri bakarrarekin. Jakitun gara, aurretik eta gauza guztien gaintetik, fedearen dohaina guztioi eskaintzen digun Jainkoaren graziak jarduten duela. Baina dohain horren bitartez, Jainkoak berak ere ez dio sinesteko edo ez sinesteko askatasun pertsonala inori ukatzen, eta geuri ere ez digu guk jaso dugun fedea besteei gogotsu zabaltzeko erantzukizuna kentzen.

I.- ZER DA JAINKOAGAN SINESTEA?

18. «*Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*» Pastoral Idazkian⁵ erantzun zabala eskaintzen genion galdera honi. Orain, argibide batzuk besterik ez ditugu eman nahi, fedea beste batzuei nola transmititu adierazteko, eta sinesteko besteak nola prestatu edota nola beraiei lagundu jakiteko lagungarri izan ditzagun.

Sinestea ez da jakitea, baina... hori ere bai

Fedea ez datza jakintza intelektualean, ezta Jainkoari buruz gauzak jakitean ere. Fedearen funtsezko edukia ez da Jainkoaren misterioari edota gure bizitzaren zentzuari buruz ideia edo jakintzen multzo aberatsa izatea. Horrega-

⁵ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 35-49. zenb.

tik, fedea komunikatzeko ez da nahikoa besteari gure jakintzak transmititzea. Hain zuzen ere, fedea nagusiki jakintza ez delako, denen eskura dago fededun izatea, apalenen zein jakintsuenen eskura. Apalenen fedean, alderdi intelektuala mugatua da, baina horrek ez du esan nahi horien fedea makalagoa denik edota beste batzuen bezain egiazkoa ez denik.

Ideiak edo jakintzak komunikatzea ez da nahiko besteari fedea transmititzeko, nahiz eta lagungarri horiek gabe egitea ere ezinezkoa izan. Gure komunikazioa bideratzeko nahitaezkoa da balio duten funtsezko ideia argi batzuk izatea, baina batez ere geure arimaren sakonean egia horiek bene-benetan sinestea da beharrezkoena. Bizitzak, batzuetan era harrigarrian eta ez erlijio-kontuetan soilik, giza arimarentzat nabaria denak egiaztapen zientifikorik ez duela behar erakusten digu. Zerbait sinestea hori egia dela jakitea da, eta ez geure buruetan bakarrik, baita geure barne-barneko izatean eta geure arimen muinean ere. Horrexegatik diogu fedea gainditu egiten duela arrazoiak; fedea ez dago gertakarien aurka, baina beraietatik harago doa, gainditu egiten ditu eta ikuspuntu berriari jartzen.

19. Gure sinesmena ez da ahalegin intelektualaren emaitza edo ondorio. Fedea ez da ikasketa hutsaren bidez lortzen, ezta arrazoiaketa edo eztabaida hutsaren bidez ere, nahiz eta horiek baliagarri izan prestaera gisa. Sinestea eta jakitea esperientzia ezberdinak dira, baina ez nahitaez aurkakoak; oso lotura berezia dute bi horiek elkarren artean. Sineste orok gutxieneko jakitea eskatzen du eta horretan bermatzen da. «Ezin dugu ahaztu, fedea badituela beti eduki batzuk. Ezin da Jainkoarengan sinetsi Jainkoak agertzen diguna sinetsi gabe. Horregatik, Jainkoarekiko duen atxikimendua, gizakiari, historiari eta munduari buruzko ikuspegia Jainkoak Jesu Kristorengan agertu digunaren argitan ulertzen saiatzen da fededuna»⁶. Sinestedun bezala, «gure itxaropenaren arrazoiak eskatzen digunari erantzuna emateko» (1 Pe 3,15) prest egon behar dugu beti; horrek esan nahi du, zentzuzko galderei zentzuzko erantzunak eman behar dizkiegula, eta ez aukera «boluntarista» hutsak.

Sinestea ez da fantasiara jotzea ere, edota irrazionaltasunari ateak irekitzea. Fede-aitortza bera sinesteko ditugun arrazoiak oinarritzen da, baina buruzko baiepen hutsera murriztu gabe. Fede-aitortzak gainditu egiten ditu sinesteko ditugun arrazoiak eta sinestera garamatzaten zantzu edo seinaleak. Halere, fedea zentzuzkoa izan behar du, benetan gizatiarra izateko; fedea bere arrazoiak izan behar ditu, arrazoiaren beraren mugak gainditzen dituen onartzeko eta baieztatzeke. «Hausnartzen ez den fedea, ez da fedea» (San Agustin).

Sinestea bila ibiltzea da

20. Sinestea, gutariko bakoitzarengan dagoen misterio sakon eta barru-barrukoari geure bizia zabaltzea da. Gure izatearen errotiko eta erabateko zentzua bilatzea da, berez balio duena eskuratzen saiatzea, eta garen eta daukagun guztiari garrantzia ematea. Gauza guztiak erlatibo edo «azken aurreko» bihurtzen dituen behin betiko errealitateaz edo errealitate absolutuaz galdetzea da. Ez

⁶ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 49. zenb.

da bizi dugun errealitatetik ihes egitea, bertan sakontzea baizik. Auzi nagusiak, eta horien artean Jainkoaren arazoa, gure bizitzako egunerokotasunean sartzen dira, nahiz eta frustrazio edo huts erara izan. Giza esperientzia, guztiona eta gutariko bakoitzarena, fedearen bilaketaren sinestearen abiapuntua da, izan ere, Jainkoa «ez dago gutako bakoitzarengandik urruti, zeren harengan bizi baikara eta harengan mugitzen, eta izan ere harengan baikara» (Eg 17,27-28).

«Sinesten dut» esatea, nire izatea neure barnean dagoen misterioari zabaltea da, biziaren misterioari baietz esatea. «Jainkoagan sinesteak azkenengo egiarenganako kezka pizturik edukitzea esan nahi du, gauzen azaleko itxurarekin bakarrik gelditu gabe; guztizko salbamena bilatzea, zatikaturiko bizitza batekin ase gabe; bizitza azkeneraino maitatzea, gauza guztien gainetik dagoen Harekin loturik»⁷.

Fedeak etengabeko bilaketa bihurtzen du bizitza. Fedeak, bilatzearen aha-legendari uko eginez, eragotzi egiten digu geure egoeran lasai edo asebeterik gertatzea. Bilatze honek, azaleko eta axolagabeko «mailaren haustura» eskatzen du eguneroko gure bizitzan, beste norbait izanik ere neure muin-muinean dagoen Hura, hau da, Jainkoa, aurkitu ahal izateko. Aurkikuntza honek goitik behera aldatzen nau, ez delako Jainkoa urrun edota nigandik kanpo aurkitzea, ezta nire bizitzan Berari lekutxo bat egitea ere, neure bizitza osoa Harenganako erreferentzian, Harengan oinarrituta eta Harengan bilduta ikustea baizik. Esperientzia honetatik ulertzen dugu, Jainkoaren bilaketan kezka eta galderak ezin direla batez ere espekulatiboak eta arrazionalak izan, existentzialak baizik.

Sinestea aurkitzea da, edo hobeto esanda «elkar aurkitzea»

21. Sinestea Jainkoarekin buruz buru topo egitea da. Topaketa lagun arteko benetako harreman bezala soilik gauza daiteke. Jainkoa ez da gauza abstraktu, nahasi edo eragabea, nola-halako zehaztasunez bakarrik imajina dezakeguna. Jainkoa, guztiz handia izanik ere, Izaki pertsonala da, topo egin dezakegu egiaz Berarekin eta harremana izan. Hauxe da Jesu Kristok agertzera eman digun Jainkoa, Elizaren fedearen muina eta gure fededun-bizitzaren oinarria.

Jainkoarekiko topaketa, pertsonen arteko benetako topaketa guztien antzera, ez da noizbehinkako edo azaleko harremana; ez da harreman urrun eta hotza. Barnerik barnekoenean eta etengabe ukitzen nauen, eta nire arreta osoa eskatzen duen presentzia hurbil eta sakona da. Topaketa honetan, gure harremana oso hurbilekoa da, eta berezia; horregatik esan diezaioket: «Ene Jainko». Honek ez du adierazten jabetza edo nagusitasun-nahia; izan ere, konturatzen naiz, Jainkoa nire gainetik dagoela pertsona bezala eta errespetatu egiten nauela pertsona bezala. Neure bizitako barnerik barneenean aurkitzen dudana, eta nire bizitza zentzuz betetzeaz batera, gainditzen duen Jainkoagan, «guztien gainetik dagoen, guztien bidez ari den eta guztiengan bizi den» (Ef 4,6) Jainkoa aurkitzen dut.

⁷ *Fededun izan federik ezak jotako egunotan*, 1988.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 52. zenb.

22. Jainkoa geure beharrian edo interesen zerbitzura jartzea besterik bilatzen ez duen harreman interesatua ez da benetako fede-topaketa. Hau ez litzateke Berarekin pertsonalki elkartzeko, Bera erabiltzea baizik. Egiazko fede-topaketan Jainkoak nire askatasunari dion errespetuaz jabetzen naiz, eta Bera manipulatu ez, baizik eta Berari Jainko izaten uzteko konpromisoa hartzen dut. Bera aurkitu eta onartzean, neure bizitzaren zentzuaz jabetzen naizela konturatzen naiz. Horregatik pizten du nigan interes handia, nire bizitzaren muinean eragina duela ikusten dut eta neure bizitza Berari zabaltzeko prestatzen naiz. Ez da truke, merkataritza edo ordainezko harremana, elkarbanatze kuttun eta egonkorragoa da, elkartasunezko egiazko harremana baizik.

Jainkoarekiko topaketen esperientzia biziki sakonak hasieran ez dira nahitaez otoitz-esperientziak izango. Aipatu esperientzia horiek besteen aldeko zerbitzuzko harremanetan bizi ditzaket, adiskidetze edo barkamen-esperientzietan, eskaintzen edo jasotzen ditudan harrera edo elkartasun-zeinuetan, besteekiko pozezko topaketetan. Honelako edozein esperientziak gure bihotzeko isiltasunera, edota beste fededun batzuekiko komunikaziora bultzatzen gaitu, otoitz bihurtzeko, bertan sakondu eta esperientzia eta topaketa berrietarako deiaz jabetzeko.

Sinestea fidatzea da (baita arriskatzea ere)

23. Fede erlijiosoa, buruz buruko topaketa eskaini dion Jainkoagan gizakiak jartzen duen erabateko konfiantza da. Fedearen benetako auzia ez da Jainkoa badela sineste hutsa, gure bizitza Jainkoaren biziari estu loturik dagoela sentitzea baizik. Jainkoarekiko topaketa eta harremanetik, biziera ezberdin eta berriaz jabetzea. Jainkoak ematen dio gizakiari sendotasuna eta trinkotasuna.

Fedean, pertsonen arteko beste harremanetan bezala, arrazoizko alderdi hutsetik harago doan konfiantza dago bestearengan, intuizioz eta arrazoizkotasunez jantzia dagoen konfiantza. Jainkoagan sinestea, batez ere, Berarengan uste on izatea da. Fidatzeak Jainkoaren leialtasunean sinestea esan nahi du. Horregatik, fedeak, bere promesak beti betetzen dituen, eta gure konfiantza merezi duen Jainkoa du erreferentziazat. «Badakit norengan jarri dudan uste ona» (2 Tm 1,12).

Sinesteak askatasunez fidatzea adierazten du, eta ez, besterik gabe, argumentu biribilen aurrean makurtzea. Sinestean ematen dugun konfiantza ez da itsua, «sinesteko arrazoi» batzuen euskarriaz argitutakoa baizik. Horregatik, besteei proposatzen diegun fedearen komunikazioa, besteak konfiantzazko jarrrerara gonbidatzen dituen testigantza-erakoa da.

24. Fedearen konfiantza, azkenik, Jainkoaganako konfiantza da, baina federa iristeko bidean, konfiantzak hitza aldarrikatzen digutenen testigantzan aurkitzen du sostengua: Jesu Kristo, apostolu, fededun eta kristau-elkartearen, Elizaren testigantza. Fededun ugariren eta Elizaren beraren makaltasun eta mugekin batera, beren fedeaganako leialtasuna azken ondorioetaraino eraman izan duten eta askotan anonimoak diren testiguen egundoko andana dago. Elizaren historian eta gaurko egunotan, gizon-emakumeen alde emaniko hainbeste bizitzaren testigantzak –hori baita, azken batean, Jainkoaren auzia– fedearen benetako

argi dira eta, zentzu honetan, «sinesteko arrazoi» sendo. Beren konfiantza oso-
osorik jarria duten Harengan konfiantza izateko dei bizi dira.

Norberaren fedea beste batzuei komunikatzeko erantzukizuna nork bere gain hartzeak, sinesmentzat aitortzen duguna koherentziaz bizitzea eskatzen digu. Ondorioz, eginkizun hori ez dagokie soilik «perfektuei»; fedea eskatzen duen eran zintzoki aurrera egiten duena eta fede hori bizitzara eramaten duena da testigu sinesgarria.

Sinestea onartzea da

25. Argi eta garbi Jainkoaren bila dabilena honetaz jabe daiteke: Jainkoa bera dabilela, lehenagotik ibili ere, beraren bila. Bere hurbiltasunaren zeinu asko jarri du Jainkoak gure bizitzan; bere presentziaren seinalez bete du gure bizitza. Jainkoa, normalean, ez da bat-batean, zalapartatsu, sartzen gure historia pertsonalean, eguneroko gertaeretan azaltzen da zuhurki, eta gure bila irteten da beste pertsonekin ditugun harremanen bidez. Jainkoak geure barnetik, baita kontzientziaren barnenetik ere egiten digu dei.

Jainkoarekin topo egiten duenak igartzen du, gertakizun hori ez dela bere ahaleginaren fruitu, grazia baizik. Fedearen esperientzia graziaren esperientzia da, aldi berean. Sinestea, guztiz berezia den erlijio-esperientziaren fruitu da. Jainkoak onginahi hutsez eskainitako dohaina onartzea da kontua, dohain hori askatasun osoz onartzea.

Dohaina ez da onginahi hutsezkoa gutxi batzuei eskaini izan zaielako. Dohainak ez du doakotasuna galtzen guztiei eskainia izanagatik. Baina asko dira Jainkoaren dohaina onartzeko lagungarri edo eragozpen izan daitezkeen alderdiak, historia eta egoera pertsonaletik eratorririko, edota familiak eta gizartegi-
giroak baldintzaturiko alderdi eragileak. Jainkoaren eskaintza geure askatasunari zuzenduta dago eta geure historia pertsonalean kokatzen da. Onginahi hutsez egindako fedearen dohaina ez da selektiboa Jainkoaren aldetik, denei eskaintzen zaie. Nahiz eta askatasun pertsonalaren eraginez edota gizarte-baldintzak direla medio, sinesteko erabakia denek ez onartu.

26. Jainkoa ezagutzea, Berarekin topaketa pertsonala izatea, Espiritu Santuaren emaitza da, bereziki. Jainkoaren Espiritua gure espiritura etortzen da, berau argitzeko; ez du gure askatasuna murrizten edota ezabatzen. Eta normalean ez du jarduten era zirraragarrian edo argi liluragarri eta itsugarriaz. Espirituaren eragina gudan motibazioak martxan jartzen dituen argiztapena da; gainera, mekanismo psikologikoak pizten ditu gudan, konturatu gabe begi aurrean genuena berriren berri antzeman ahal izateko.

Fedearen topaketak beharrezko du otoitza; eskatu egin behar dugu fedearen dohaina. Hauxe da Jainkoa hobeto ezagutzeko era: beraren aurrean konfiantza osoz jarri eta laguntza eskatzea. Jainkoaren Hitzera hurbiltzean, geure bizitzaren zentzuaz jabetzen gara eta Jainkoaren arabera bizitzeko borondatea suspertzen dugu. Bilaketako lehenengo urratsetan ere egin daiteke otoitz. Jainkoarekin topo egiteko prest dagoenak eta, bere buruarekiko zintzotasunean, si-

netsi nahi duenak, Charles de Foucauld-ek bilaketaldian egin zuen otoitza egin dezake: «Ene Jainko, bizi bazara, emadazu Zeu ezagutzea».

Fedea beste bati komunikatu nahi dionak, Espirituaren indarrean izan behar du konfiantza eta beraren laguntza eskatu behar du otoitzean. Lagun egin nahi diogunarekin otoitz egitean, «gure ahulezian lagun datorkigun» (Erm 8,26) Espiritu Santuaren laguntza bere ahoz eskatzen lagundu behar diogu.

Sinestea fedea besteekin bizitzea da

27. Fededunak Jainkoarekin duen topaketa pertsonala, fede-bizitzako funtsezko esperientzia da. Topaketa horrek, jakina, Jainkoarekiko hurbiltasuna eskatzen du, intimitatea, baina fededuna ez du besteengandik aldenduriko izaki bihurtzen. Fedea ezin da bakarka bizi.

Benetako fedea, bizitza bihurtutako fedea, gizakiaren alderdi guztiak ukitzen ditu, baita bere izate soziala ere. Jainkoa Aita denaren esperientzia duenak, bere anai-arreba eta, aldi berean, Jainkoaren beraren seme-alaba bezala onartzen ditu. «Bat bakarra da Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra bataioa, bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita» (Ef 4,5-6).

Fedea, besteekin batera biziz da onartzen, janaritzen, arazten, egiaztatzen, sendotzen, ospatzen eta komunikatzen. Familian, elkartean, Elizan, nire fedea, aldi berean, gure fedea da. Ez gara denok berdinak, eta ez ditugu fedearen esperientzia edo bizipen berdinak, ez. Baina elkarren beharra dugu fedea bizitzeko eta elkarri laguntzen diogu fedean hazten. Fedea, maitasunaren antzera, besteekin batera bizitzen denean gehitu egiten diren ondasun horietakoa da.

Sinestedun izateak elkarteko kide izatea dakar, fedea gainerako fededunekin Elizan bizitzea eta, Jainkoagandik beragandik jaso izan dugun dohainik baliotsuenean parte hartzeko gonbitea eginez, beste batzuei helarazteko konpromisoa hartzea.

Sinestea konprometitzea da

28. Fedea, bereziki, bizitza da, eta ez jakite hutsa; ondorioz, fedearen benetakotasuna, bizitzen saiatuz bakarrik egiazta dezakegu. Horregatik ezinbestekoa da konprometitzea. «Sinesten dut Jainkoagan» esateak konpromiso bat adierazten du: Jainkoa nire bihotzaren erdian jarririk bizitzeko konpromisoa argi-ilunez beteriko eguneroko bizitzan. Beragan oinarriturik, Berak gidaturik, Berarekin konprometiturik, egiaztatu egiten dut urratsez urrats, neure esperientziaz, esaldi horren balioa eta egia guztia.

Sinestedunarentzat funtsezkoena ez da bere fedeaz «esan» dezakeena, barnean bizi eta esperimendatzen duena baizik, nahiz eta zailtasunak izan hori hitzez adierazteko. Sinestea, gainditzen nauen eta, hain zuzen gainditzen eta eraldatzen nauelako, erabateko osotasuna ematen didan errealitatea pertsonalki esperimendatzea da. Askatasunez bizi den konpromisoak, bizi izandako esperientzietatik norberaren fedearen egiazkotasuna argitzen laguntzen du.

Fedeari esker sumatzen dut, nire sinesmenaren oinarri den Jainkoarekin konprometitzen ez naizen bitartean, ez dudala ezer ulertuko neure bizitzaz. Fedearen behin betiko froga ez da arrazoizkoa, bizitzazkoa baizik. Jainkoagan sinesten dudala eta neure bizitzako muintzat onartzen dudala frogatzeko erarik onena beraren gidaritza onartzea da.

Sinestea gurtzea da

29. Sinestea, Jainkoa absolutu bakar bezala onartzea da. Haren aurrean, eza-gutzen dugun gainerako guztia «azken-aurreko» eta erlatibo bihurtzen da. Haren bitartez, gauza guztiek zentzu berria hartzen dute. Horregatik da fedea bateratzailea eta sinestedunaren bizitza osoaren ardatz. Baina ez dira erlijio-ideiak eta arauak gure bizitzako muin bihurtzen direnak, Jainkoa bera da muin bihurtu dena; ideia eta arauak, berriz, Jainkoaganako bitarteko edo sarbide baino ez dira. Jainkoagan sinestea, Bera nire izate osoaren ardatz eta muin bezala onartzea da. Hauxe da Jainkoa gurtzeko funtsezko era: beraren aurrean bizitzea inolako sasijainkorik eraiki edota onartu gabe.

Jainkoa absolutu bakartzat hartzeak neure bizitza Berari sagaratzera eramaten nau: naizenaren eta daukadanaren eskaintza pertsonala egitera, neure burua oso-osorik Berari ematera. Honek ez nau alienaziora eramaten, Beragan oinarrituriko bizitza, askeagoa eta, aldi berean, seguruagoa dela sumatzen dudalako. Gainerako guztiaren esklabotasunetik askatuta, neure buruaren jabeago egiten naiz. Neure burua handiago ikusten dut, beraren aurrean makurtzen naizenean.

Aitorpen honek Jainkoarekin otoitzean harreman estuagoa izatera eramaten nau. Nire bizitza argitzen duen Jainkoaren Hitza arretaz entzuteko aukera bilatzen dut, beraren egitasmoei nire prestasuna eskaintzeko. Beraren presentzian bakea bilatu nahi dut, beraren dohainak esker onez onartu eta beraren ontasuna pozarren ospatu. Konfiantza ernetzen da nire bihotzean eta nire ez-painek haren izenaren gorespena abesten dute. Bera dut euskarri nire beharrian eta makalaldietan, ziurra da-eta beraren errukia eta barkamena. Ezagutzera eman nahi dut, neure senideak haren handitasunaz jabearazi, ondotxo dakit-eta ez diela huts egingo.

Sinestea maitatzea da, zerbitzatzea

30. Jainkoa, Jesu Kristoren Jainkoa, benetan ezagutzen duenak maitasuna ezagutu du, «Jainkoa maitasuna delako» (1 Jn 4,8). Jainkoaren maitasuna ezagutzen duenak maitasunez erantzuten du, baina ez Jainkoari soilik, baita senideei ere. Horrela, Jainkoaren egia senideenganako maitasunez egiaztatzen da, «ez hitzez eta ahoz, egitez eta egiaz baizik» (1 Jn 3,18).

Benetako sinestedunak ezin du Jainkoarekiko harremana era indibidual, intimista edo bakartian bizi. Jainkoa geure bizitzako muin bihurtzeak bestee-gana zabalik bizitzea eskatzen digu. Sinestea besteekin zerbitzuzko jarreran bizitzea da: solidario besteen beharrianetan, beraien oinazeetatik hurbil, pozetan elkartuta, makaltasunak zurituz eta irainak barkatuz... Zerbitzuzko maitasun

honek ez du hurbiltasun, kidetasun edo elkarrekikotasun-mugarik; izan ere, «maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue?» (Lk 6,32).

Jainkoaganako fedea eta maitasunak eraldatutako bizitza, ondasun guztiak eta bereziki, zoriontasunaren beraren ardatza den ondasunik baliotsuena, fedea, besteak gogoan izanik erabiltzea da. Gainerako ondasunen erabilera fedearen beraren zabalkunderako zeinu eta bide izango da. Sinestea, beraz, fedea transmititzea da.

II.- ZER DA FEDEA TRANSMITITZEA?

31. Guk eginkizun argia dugu besteei fedea transmititu edo komunikatzean: beste horiek prestatzea, Jainkoak onginahi hutsez eskaintzen dien dohaina askatasunez onar dezaten. Egiteko zaila da eta horretarako baliabide batzuk aipatuko ditugu orain.

Fedea transmititzea kristau-bizitzaren testigantza hurbila eskaintzea da

Fedea hurbiltasunez komunikatzen da; nahitaezko dira presentzia eta hurbil egotea. Bizitza elkarrekin egitea da hurbiltasuna. Eguneroko bizitzako baldintza edota egoerekiko sentibera izatea. Hurbiltasun honetan antzematen da fedea eraginda jarduten duenak eskaintzen duen testigantza. «Demagun, bizi direneko giza elkartearen barnean badela kristau bat edo kristau-talde bat, ulermen eta onarpen-gaitasuna erakusten duena, besteekiko bizi eta zori-elkartasuna duena, eta guztien ahalegin zintzo eta onetan solidaritatea adierazten duena. Demagun, gainera, apaltasunez eta berezkotasunez, balio arruntetik harago dauden balioetan duten fedearen, eta ikusten ez den eta amestu ere egingo ez luketen zerbaitengan itxaropenaren distira zabaltzen dutela. Hitzik gabeko testigantza honen bidez, kristau hauek isildu ezinezko galderak sortzen dizkiete beren bizitza ikusten dutenei: zergatik dira horrelakoak?, zergatik bizi dira horrela?, zerk edo nork ematen die goi-arnasa?, zergatik daude gurekin?... Sortuko dira beste galdera sakonago eta konprometigarriago batzuk ere, presentzia, partehartzea eta elkartasuna dakartzan, eta ebanjelizatzean funtsezko osagaia, osagai nagusia, den testigantza honek eraginda. Kristau guztiak testigantza hau ematera deituak daude eta, zentzu honetan, benetako ebanjelizatzaile izan daitezke»⁸.

Hauxe da sinestedunaren bizitza-testigantzarik erakargarriena: Jesu Kristoren Jainkoaganako fedea bere bizitzako muin bihurtzen duenaren, eta besteen aldeko zerbitzu eskuzabalean apaltasunez konprometitzen denaren bizitza zorionez eta bakez betetzen duela berez-berez antzematea. Biziera honek argi eta garbi erakusten digu, ezin direla elkarrengandik bereizi, ikusten ez den Jainkoaganako maitasuna eta ikusten diren senideenganako maitasuna.

⁸ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa (1975-XII-8), 21. zenb.

Fedea transmititza galderak sortzea da

32. Federa prestatzeko, lagun bakoitzari bere bizitza sakontasunez bizitzen lagundu behar diogu. Begiz eta eskumenean ikusten dena murriztutako bizitzaren mugak gainditzen lagundu. Gizakiaren galdera handiez jabetzera dei egin. Garrantzi handiko auziei buruzko kezka sortu. Bizitzako azalera eroso eta asebetarik bizi dena ez da inoiz fedearen benetako balioa eta zentzua ezagutzera iritsiko.

Axolagabekeriak eta arinkeriak, askotan, eragotzi egiten du norbere buruaren eta bizitzaren balio eta zentzuari buruzko galdera nagusiak egitea. «Izan ere, nondik datorren eta nora doan, nor den eta bizitzan zer egin behar duen galdeztzeko ausardiarik ez duen pertsona, Jainkoagandik urrutiratu egiten da azkenean»⁹. Bere buruari galderarik egiten ez dionak ez du erantzunik behar, eta ez du erantzunik onartzen. Galderak era egokian egiten asmatzen ez badu ere, bere galderen bidez bila dabilenarentzat bakarrik du zentzua fedearen erantzunak.

Gogoratu dugunez, galdera sakonak sor ditzakeen bizi-testigantza eskaintzeaz gain, beste hainbat kezka ere sor diezaiekegu errespetu osoz, bizitzan ditzuten arrazoi, jarrera eta konpromisoei buruz. Zeru-mugak zabaltzen laguntzeko bidea da, fede-erantzuna egokiago kokatu ahal izateko. Fedearen bilaketan geure buruari egiten dizkiogun galderak besteekin batera egiteak, arazo horien ganako interesa eragin dezake beraiengan.

Dena dela, norbait fedearen bilaketarako prestatzean, ez ditugu galdera erretorikoak edota arazo teorikoak aurkeztu behar, geure bizitza eta izatean eragina duena, kezkatzen gaituena eta interesatzen zaiguna planteatu baizik.

Fedea transmititza nork bere esperientzia pertsonala kontatzea da

33. «Azken batean, ba ote da Ebanjelioa komunikatzeko beste biderik, besteari norbere fede-esperientzia transmititza izan ezik?»¹⁰.

Fedea transmititzeari egin diezaiokegun zerbitzurik onena ez da erlijioaren misterioei buruzko gogoeta korapilatsuak eskaintzea edota fedearen edukien arrazoizko aurkezpena egitea. Geure esperientzia pertsonala komunikatu behar dugu, «bidean gertatua kontatu zuten» (Lk 24,35) Emauseko ikasleen antzera. Jainkoa bereziki hurbila dela ikusarazi diguten bizitza pertsonaleko egoera eta esperientziak apaltasunez kontatzea da, hain zuzen ere, baliotsuena. Eta gure esperientziaren kontakizun hori, bizi izandakoa beste batzuei hizkuntza apalez jakinarazi nahi diegu, badakigu-eta «gaurko gizakiak gusturago entzuten diela testigantza ematen dutenei, irakasten dutenei baino, edota irakasten dutenei entzuten badie, testigantza ematen dutelako dela»¹¹.

⁹ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 13. zenb.

¹⁰ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa, 46. zenb.

¹¹ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa, 41. zenb.

Jainkoari buruzko gure esperientzia kontatzeak zera esan nahi du: gure poz eta penetan beraren presentzia nola bizi dugun adieraztea, gure beharriaz netan Beragana nola jotzen dugun, zailtasunean Beragan nola dugun ustea eta itxaropena, ilunpetan beraren argia nola bilatzen dugun, larritasunean beraren bakea nola bilatzen dugun... adieraztea. Eguneroko bizitza dut gunerik egokiena, gure gainera dagoen, gu baino handiagoa den eta Berarekin elkartzeko dei egiten digun «Nor bait» badagoela esperimentatzeko eta besteekin batera hori bizitzeko.

Beren fede-bidean besteei zerbitzu zintzoa eskaini nahi badiegu, ezin ditugu geure muga, zalantza, ezbaiak edota geure koherentziarik eza ezkutatu. Apostoluaren antzera onartzen dugu, «*buztinezko ontzitan*» (2 Kor 4,7) altxorra daramagula, eta argiago azaltzen dela gure makaltasunetan Jainkoaren indarra. Fedeak ez gaitu on-onak edota akasgabeak egiten, baina apal eta zintzo izatea eskatzen digu.

Fede transmititzea Jainkoaren egiazko aurpegia ezagutzera ematea da

34. Jainkoarekin pertsonalki topo egiten lagundu nahi badugu, aurkeztu egin behar dugu, ezagutzera eman, beraren benetako aurpegia aurkitzen lagundu. Haren irudi benetako eta garbiak soilik egiten du Jainkoa erakargarri eta interesgarri. «Jesusengan ezagutzera eman zaigu, munduaren azken misterioa ez dugula bilatu behar indarrean, agintean, ordenuan edota nor bere gogoan, baikik eta Aita baten maitasunean. Aita hori da gure azken ikuspegia eta jomuga; Aita horrengandik bakarrik uler genezake geure bizitza, eta Berorrengana egon behar du zuzendurik gure bizitza osoak»¹².

Ez dugu irudimenaren edo sormenaren fruitu den Jainkoaren aurpegi zailik bilatu behar; nahikoa dugu Jesus Aitarekin agerpen bezala ezagutzera ematea. Berak diosku: «Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du» (Jn 14,9). Eta Joan Paulo II.ak zera dio: «Gure garaiko gizon-emakumeek, askotan beharbada konturatzeke, Kristoz 'hitz egiteaz' gain, 'ikusaraztea' eskatzen diete sinestedunei»¹³.

Hainbat aldiz, desegin beharrak daude guk geuk ditugun Jainkoaren gezurrezko irudiak, ez baitute haren egiazko irudia erakusten. Urrundik eta entzute hutsez ezagutzen duten Jainkoa da batzuek ukatzen dutena, ez dielako inolako interesik pizten eta, behin baino gehiagotan, gogait ere eragiten dielako. Jainkoaren egiazko aurpegiari kendu egin behar dizkiogu makillaje desitxuratzailak, baldin eta benetan ziur bagaude beraren egia eta edertasunaren erakargarritasunaz. Guztiz garrantzitsua da besteei, bereziki apalenei, «kalterik ez egitea»; ez dugu Jainkoaren irudi faltsu, zatikako edo interesaturik eman behar.

35. Guk Jesu Kristo berpiztuagan agertu zaigun Jainkoa ezagutzen dugu, eta hori da transmititu nahi duguna. Beragan «Jainkoa, alde batetik, biziaren Krea-tzaile agertzen zaigu: gauza guztien hasieran izaera ematen dien biziaren Krea-

¹² *Jesu Kristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, 1986.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 39. zenb.

¹³ *Novo millennio ineunte*, Joan Paulo II.aren Gutun apostolikoa (2001-I-6), 16. zenb.

tzaile; baina, bestetik, azkenean zai daukagun biziaren Salbatzaile agertzen zaigu, heriotzaren indar hondatzailea garaitzeko indarra Berekin duela»¹⁴.

Jesusengan ezagutzen dugu erakartzen gaituen eta gure bizitzak betetzen dituen Jainkoaren aurpegia: «gizakiaren salbamina besterik bilatzen ez duen Jainkoa; biziaren aldekoa dena; gizakiaren beharrik funtsezkoenetatik hurbil dagoena; pobre eta baztertuen Jainkoa; gure historian zuzentasun, senidetasun eta bakezko erreinua ezarri nahi duen Jainkoa; gure salbamenerako gurutziltzatu; piztuerara eramaten duena; eta Hirutasunezko misterio ulergaitzaren maiatasuna den Jainko honengan jar dezakegu geure azken itzaropena»¹⁵.

Fedea transmititzea askatasuna errespetatzea da

36. Jainkoarengana zabalik dagoen gizakiak aske izan behar du, eta zenbat eta harrera hobea egiten dion beraren euskarri den eta beraren gaintetik dagoen Jainkoaren «bizi» erabat desberdinari, orduan eta beteago jabetuko da bere bizitzaren zentzuaz. Fedea, eskaini eta entzundako Hitzaren onarpen pertsonala da, inposaketarik gabe onartua. Askatasunez jantziriko gizakiak bakarrik onar dezake agertzeraren ematen den Jainkoaren hitz askea. Bada soziologikoki baldintzaturiko fedea; sinetsi behar dugula esaten zaigun hura onartzen duguneko. Baina fedea, berez, entzundako Hitza onartzeko edo baztertzeko gai diren kontzientzia askeen sakonean gertatzen da.

Jainkoa bera da gizakiaren bila dabilena, eta gizakiak Bera askatasunez aurkitzea eta onartzea nahi duena. Jainkoak berak eskaintzen du –bere Espirituaren eraginez–, dohain eta grazia bezala, gure bizitzan bere presentzia hurbila antzemateko beharrezko argia. «Eguzkia gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen duen, eta euria zuzenentzat eta okerrentzat egiten duen» (Mt 5,45) Jainko berak eskaintzen digu guztioi dohain hori. Eta bakoitzak onartu edo arbuiatu egin dezake dohain hori, askatasun osoz; garrantzizkoa, prestasuna izatea da Bera eza-gutu eta «iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko» (Lk 12,36).

Fedeari egiten diogun zerbitzuak askatasuna errespetatuz bakarrik du balioa, besteen askatasuna eta Jainkoaren askatasuna errespetatuz. Guri, bi pertsona aske topa egin dezaten bitartekotza eskaintzea dagokigu; grazia, Jainkoaren dohainera, prestatzea. Errazago onartzen du grazia hori bere bilaketan bidelaguna duenak, deia besteen bitartekotzaren bidez jasotzen duenak, Jainkoaren presentziaren zeinuak ulertzeko argibideak ematen zaizkionak, edota zalantzak argitzeko norbait ondoan duenak. Horretan datza gure egitekoa.

Fedea transmititzea salbamen-bide bezala aurkeztea da

37. Kristau-fedea, Kristogan sinestea da eta Jesu Kristo berpiztu zuen Jainkoagan ere sinestea. Fedeak Kristoren eta fededunaren arteko bizi-elkartasuna

¹⁴ *Jesu Kristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, 1986.eko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 45. zenb.

¹⁵ *Sinesmen biziagoaren zerbitzuan*, 1997.eko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 54. zenb.

ezartzen du, piztueraren eta biziaren Jainkoarekiko bizi-elkartasuna. Fedeak bizi-elkartasuna sortzen du gure eta Jainkoaren artean, gure bizitzan duen presentzia eta eskuhartzearen onarpen zintzoa, Jainkoaren eta sinestedunaren arteko batasun pozgarria.

Horregatik, fedea salbamen-bide bihurtzen da sinestedunarentzat. Jainkoak biziki nahi du fededunon salbamena, bere Espiritua ematen digu eta neurrigabeko bere bizitza hilezkor, santu eta zorionsuan sartzeko gonbitea egiten digu. Jainkoagan sinestea Berari gudan jarduten uztea da, haren dohainak onartzea, gure bihotzaren sakonean oraintxedanik betiko biziaren egia, heriotzaren ondoren agertuko den eta piztuera unibertsalaren egunean bere osotasun betera iritsiko den biziaren egia, onartzea.

Fedea transmititzea, fedearen bidez, «hildakoen piztueran parte izateko itxaropenez» (Flp 3,11), Jainkoagandik datorkigun salbamena onartzeko eta itxaroteko deia egitea da. Kristogan sinesteak, Berarekin batera Jainkoaren seme-alaba izatera garamatza eta, seme eta alaba izanik, bere bizi eta salbamen-promesak oinordekotzan hartzeko eta jasotzeko aukera ematen digu. Jesu Kristoren Jainkoaganako fedea betiereko salbamenaren ateak irekitzen ditu.

Fedea transmititzea elkarrizketarako gai egitea da

38. Topaketak sortzen duen harremanean ezinbestekoa da komunikazioa, elkarrizketa; baita Jainkoarekiko topaketan ere. Batzuetan, topo egin aurretik ere, izan ohi da elkarketa eragiten eta prestatzen duen deia. Baina komunikazioa ez da beti hitzetara mugatzen; zeinuen bidez ere garatzen da, edota sinboloez adierazten. Jainkoarekiko komunikazioan, Hitza entzunez eta bizitza oinarri harturik otoitz eginez ezartzen da elkarrizketa.

Jainkoak bizitzako gertaeren bidez eta geure inguruan daudenen bidez hitz egiten digu. Berauen beharizan, eskaera, galdera, indar edota makaltasunean entzun behar dugu Jainkoak egiten digun deia. Bizitza argitzen laguntzen digu Hitzak, bereziki Liburu Santuaren bitartez, Jainkoaren deia eta egitasmoak antzemateko geure bizitzan. Hausnartu egin behar den Hitza da, ezin da azaletik interpretatu. Kontraesanik gabeko batasun osoa du eta, beraz, ezin da geure interesen arabera zatikaturik erabili. Elizaren tradizioak Hitzaren esanahirik sakonena ulertzen laguntzen digu. Baina norberak bizitzarekin alderatu behar dugu Hitza, Jainkoak esaten diguna bilatzeko. Gure historia pertsonal eta sozialeko gertakizunak argitzen dituen Jainkoaren Hitza arretaz entzuten laguntzea, Berarekin pertsonalki topo egiteko prestaera da, fedea transmititzeko era.

Gure otoitza era askotakoa izan daiteke: deia, kexua, eskaera, onarpena, gorespena, harrera, entzutea, kontenplazioa... azken batean, Jainkoarekin bat egin eta solasean jarduteko era. Otoitz egiten laguntzea, Jainkoaren esperientzia izateko sarbide-ahaleginean laguntzea da, Harekin elkarrizketa izateko prestatzea. Hasierako urratsetan, otoitz egiteko erarik errazena, batzuek «pobrearen otoitza» deitzen diotena da: guk lagunaren aurrean Jainkoari zuzentzen dizkiogun hitzak, berak bere ezpainez eta bere bihotzean errepikatzeko eskatzea, alegia. Otoitz egiten hasten denak eta iluntasun eta zalantzatik ere otoitz egiten

duenak, bilatzen diharduen eta aurkitu nahi duen Jainkoagan bere konfiantza jartzearen lehenengo apustua egiten du.

Fedea transmitzea Elizaren fedea proposatzea da

39. Fedea, aukera aske eta pertsonala izanik ere, inork ez du bakarka eta gainerako fededunengandik isolatuta jasotzen, komunikatzen eta bizitzen. Jaso, komunikatu eta bizi dugun fedea Elizaren fedea da, geure nagusiengandik jaso izan duguna, apostoluen garaietatik etengabe helarazia. Fede hori gutako bakoitzak geure eta pertsonal egiten dugu Elizaren laguntzarekin. Fedearen gordeztaile den eliz elkarteak bermatzen digu berorren kristau-egiazkotasuna. Fededun guztien fede-esperientzia pertsonalak aberastu egiten du Elizaren fedea, bizia emanaz, egoera desberdinetara moldatuz.

Elizaren kredoan, mendeetan zehar espiritu-bizitzaren sustraietan dauden bizitzari buruzko ideia eta jakintzen adierazpena da, kontzeptu eta ikuspuntuen adierazpena. Ideiak aldatu egiten dira, bai, sasoi batetik bestera, beren esamoldean eta helburuetan, garai edo leku bakoitzeko arazo eta kulturetara moldatzeko; baina berorien mamiak iraun egiten du: Jainko sortzailea eta Aita dago, gizadiaren sorburu eta azken jomuga dena; Jesu Kristo Jainkoaren Semea da, gure salbamenerako hil eta berpiztua; Espiritu Santua gutako bakoitzarengan bizi da eta Kristoren ageriko gorputza den Eliza suspertzen du. Kontua zera da: ea kredoaren eduki horrek zentzurik baduen ala ez guretzat, hemen eta orain. Geureganatu egin behar dugu, bizitza bihurtu, gaurkotu. Fedea transmitzea, kristau-mezuaren muina, hau da, Elizaren kredoan, proposatzea da; baina ez formula huts bezala, baizik eta ikuspuntu berri batetik, hau da, Jainkoaren ikuspuntutik, beste era batera bizitzen lagunduko digun, erreferentzia eta arrazoiz beteriko mezu bezala proposatzea.

Fedea transmitzea bilaketan bidelagun izatea da

40. Aldaketa sakonak izan dituen sasoi batean bizitza egokitu zaigu. Aldaketa hauetan bat zera izan da: gauza guztiek fedearen transmisioa egiten laguntzen zutela zirudien gizartetik, fedearen transmisioan krisi orokorra nabarmentzen den beste gizartera igaro garela. Egoera berri honetan, ezinbestekoa da kezkatu-rik bizi direnei, arazoak planteatzen dituztenei eta fedearen bilaketan ahalegintzen direnei zuzeneko arreta pertsonalizatua eskaintzea. Ez dira gutxi, gaur egun, fedea zaindu ez dutenak, galdu dutenak, edota sekula ezagutu ez dutenak, eta orain fedearen bila dabilzanak. Gure elkarteek harrera-esperientzia eta gune gutxi dute oraindik horrelakoei eskaintzeko.

Harrera eta laguntza-zerbitzu hau eskaintzeko nahitaezkoa da enpatia garatzea, bestearen larruan sartu eta beraren lekuan jartzea, federa iristea eragozten dioten zailtasunak nork bere barrutik uler ditzan eta berari zailtasun horietaz jabetzen lagun diezaion; horrela lortu ahal izango du zailtasun horiek indargabetzea edo gutxienean makaltzea. Horrela bakarrik ulertuko dugu bestea; eta ulertuz bakarrik eskain daiteke laguntza sendoa. Zerbitzu hau, hasieran behintzat, hobeto egiten da komunikazio eta harreman pertsonalaren bidez, taldeko

topaketa edo bileretan baino. Baina beharrezkoa izango da taldearen esperientzia ere fedearen elkarte eta eliz alderdia bizi eta adierazteko.

41. Fedea zintzotasunez bizi duenak askotan izango zituen, seguruenik, beste batzuek beren bilaketan zehar izan dituzten zalantza eta asaldura berberak. Lagungarri ona izan daiteke besteentzat ere, fedearen zailtasunak geure haragian nola bizi izan ditugun apaltasunez gogoratzea eta berorien berri besteei ematea. Kasu askotan, garrantzitsuagoa da entzuten jakitea, esaten jakitea baino. Beraien arazo eta kezkak onartzeak, isilune luzeez eraturiko entzute arretatsua eskatzen du askotan.

Galdera batzuek ez dute erantzunik; erantzun bila ibiltzea, denbora galtzea da. Gauza garrantzitsuei jarri behar diegu arreta, alferrikakoetan denbora galdu gabe. «Egiezue harrera ona sinesmen heldugabekoei, iritziak direla-eta eztabaidan hasi gabe» (Erm 14,1). Badira galderak beste galdera batzuez erantzuten direnak. Fede-esperientzian sarritan gertatzen da hori, planteatzen diren arazoak geure bizitzari buruzkoak direlako eta inork ezin digulako horien erantzuna kanpotik eman.

Fededunak, bere mugez jabeturik, fedearen bila dihardutenengan sortzen diren itxaropenei berak ezin diela erantzun ikusten duenean, laguntza egokia eskain diezaiekeen norbaitengana bideratu behar ditu. Eta, aldi berean, bere gaitasuna suspertu behar du, fedearen komunikatzaile bezala.

HIRUGARREN ZATIA

Fedearen transmisioan denok gara erantzule

42. Fedea transmititu edo komunikatzea ez da kristau-elkarteko artzain eta katekistei soilik dagokien misio edo eginkizuna. Edozein adin eta egoeratako sinestedun guztien berariazko erantzukizuna da. Bere fedearen balioaz benetan pozez jabetu denarentzat, fedea ez da erantzukizun neketsua, ez da zama. Fedea bere bizitzako ardatz eta muin egiten duenak gogo bizia sentitu behar du, benetakako altxortzat onartzen duen hori beste batzuen artean, bereziki hurbilenean artean, zabaltzeko. Sinestedun bakoitzak beste batzuei helarazi behar diegu geure fedea, eguneroko gure bizitzako harreman guztien bidez.

Denok gara erantzule fedearen transmisioan, nahiz eta denok egiteko berdinak izan ez. Gaur kristau asko ez da konturatzen erantzukizun hori berea ere badela eta, konturatuta ere, bere burua ez du horretarako gai ikusten. Lehenengo eta behin, beren fedea sendotzen eta sakontzen lagundu behar diegu horrelakoei, gero beste batzuei helaraz diezaieten. Kristau laikoek zeregin berariazkoa eta ordezkazina dute fedearen komunikazioan familian eta bizitiroetan, kristau-elkartean eta artzainen laguntzarekin.

I.- FEDEAREN KOMUNIKAZIOA FAMILIAN

43. Eguneroko bizitzan eratzen ditugun harreman korapilatsuek famili alorean dute gutako gehienontzat eraginik sakonena, zuzenean geure barne-muinean ukitzen gaituztelako. Baliarik sakonenak eta ondasunik baliotsuenak doan banatzen ditugu hurbilekoenen artean famili bizitzan. Gure fedearen altxorra ere hortxe bizi behar dugu elkarrekin, bizitzako aldi desberdinetan gartzten ditugun harremanen barnean.

Fedea familian transmititzea dela-eta ezin dugu pentsatu, gurasoei dagokien eginkizun bakarra seme-alabei kristau-hezkuntza helaraztea denik. Fedeari buruz azpimarratzekoa da, harreman horizontalek ere, hau da, gurasoen euren arteko harremanek edota senideen artekoek, aparteko garrantzia dutela. Ezin dugu ahaztu, bestalde, seme-alabek, haurtxo zein gazteek, fede-auzietan gurasoen aurrean izan dezaketen zeregin eraginkorra.

Fedeari buruzko elkarrizketa gurasoen artean

44. Senar-emazteen batasuna gizakien artean dagoen harreman pertsonalik barnekoena eta sakonena da. Senar-emazte kristauek Jainkoaren maitasunaren zeinu bihurtzen dute errealitate hori. Elkarrenganako leialtasunean konprometitutako gizon eta emakumeek beren ondasun guztiak elkarbanatzeko deia jaso dute, beren artean komunikazio zintzoa eta sakona ezarriz. Ideia eta sentimenduak, egitasmo eta itzaropenak, ahalegin, poz eta nahigabeak konpartitzen dituzte, beren bizitza-egitasmoa elkarrekin aurrera eramateko.

Askotan, ez da elkarrizketa zabal eta zintzorik izan ohi, ezta senar-emazte fededunen artean ere, fedearen esperientziari buruz. Fedea egiazkoa bada, ezin besteko bizi-arnasa izaten da eguneroko bizitzarako, baita bizitzan hartu ohi ditugun erabaki eta konpromisoetan ere, bereziki ezkon-bizitzako auzirik garrantzitsuenetan. Senar-emazteen artean fedea komunikatzea ez da, batez ere, erlijioeko egia edota edukiei buruz elkarri arrazoiak ematea, beste hau baizik: bakoitzak bere usteen indarra edota makaltasuna besteari apaltasunez adieraztea, erlijio-sentipenak zintzotasunez adieraztea, zalantzak edota ziurtasunak eskaera nahiz laguntza-eskaintzat hartzea, elkarrekin bizi dituzten eguneroko egoeretan Jainkoaren presentzia elkarrekin bilatu eta onartzea. Ezkonbizitzaren testuinguruan, ezkontide bezala bizi eta konpartitutako fede bihurtzen da senar-emazteetako bakoitzaren fede pertsonala, elkarrekiko hazkuntzarako. Esperientzia honetatik sortzen da, fedea elkarrekin otoitz egiteko, ospatzeko, hausnartzeko eta adierazteko aukera eta beharra.

Bikote-bizitzan kide batek bakarrik sentitzen duenean fedearen gidaritza, ezin du isildu sinestean izatea beren arteko bizikidetzan. Bien uste sendoak errespetatuz eraturiko harremanak ezin du ahaztu kide bakoitzaren nortasunik sakonena. Egongo dira aukera eta egoerak, elkarrekiko erabakietan eragina duten jarrera eta konpromiso pertsonalak janaritzen eta bideratzen dituzten balio, erreferentzia eta sinesteei buruz luze eta zabal hitz egiteko eta elkarri adierazteko aukerak. Elkarrenganako ezagutza eta ulermenean hazteko bideak eratzea da ezkon-bizitzako etengabeko eginkizunetako bat, eta hori ezingo da lortu fedearen esperientzia pertsonalak adierazi gabe.

Seme-alabak fedean hezte

45. Gu familia fededun baten barnean jaio ginen federa. Bizitzara begiak irekitzean, gurasoengandik, bereziki amarengandik, jasotako maitasun eta samurtasunean hasi ginen Jainko Aitarengandik guranako maitasunaren irudia ezagutzen; berriak izan ziren maitasun horren berri eman ziguten lehenak. Etxean entzun genuen, bestalde, beste inon baino lehen, Jainkoaren Seme Jesusen izena, eta otoitzean Berarekin solasean jarduten lagundu ziguten. Gure familiak eraman gintuen Elizara, Bataioa eskatzeko eta elkarte-bizitzan parte hartzeko: ospakizunetan, katekesian eta kristau-karitatezko konpromisoetan. Jakin badakigu, guztiz lagungarria izan dela gure nagusien famili zerbitzu hau gure kristau-nortasunaren geroko garapenean. Joan Paulo II.ak berak ere, joan den udan gazteekin izan zuen topaketan, hauxe esan zien bihotzondoa zabalduz: «Neure familian ikasi nuen otoitz egiten eta Jainkoagan konfiantza izaten».

Gure gurasoek giro sozial hobean egin zuten fedea zabaltzeko eginkizun hori; baina, batez ere, erantzukizun horren oinarrian uste osoa eta ziurtasun sakona eta eraginkorra zeukaten, nahiz eta askotan eginkizun hori baliabide intelektual eta pedagogiko urriez burutu behar izan.

46. Gaur lehen baino beharrezkoagoa da familietan seme-alaben fede-esnatzea zaintzea lehenengo urteetan, eta hurrengo urratsak egoki bideratzea fedearen hazkuntzarako. Guraso kristauak dira beren seme-alaben fedearen lehenengo hezitzaileak. Lehenengo bizi-esperientziak lagundu egin behar diote haurrari, gurasoen babes eta laguntzarekin, apurka-apurka berenganatzen diharduten mun-

duaren ikuskeran Jainkoaren irudia kokatzen, Bera baita izaki guztien gainetik dagoena eta guztiari zentzua ematen diona. Ez da beharrezkoa Jainkoari buruz azalpen korapilatsuak ematea, Berak eguneroko gure bizitzan duen aparteko lekua ikusaraztea baizik. Haurrari kosta egiten zaio ideiak eta arrazoibideak jasotzea, baina erraz bereganatzen ditu gurasoengan ikusten dituen erlijio-jarrera eta sentimenduak. Gero, senitartekoekin batera bizi duen erlijio-bizipena hobeto ulertzen eta adierazten lagunduko dioten galdera xumeak egiten joango da poliki-poliki.

Aitak eta amak, familiako beste kide batzuekin, eta bereziki aiton-amonekin batera, aukera dute, haurrak Jainkoaren presentzia, apurka-apurka, bere bizi-esperientzian eratzten diharduen munduaren irudian naturaltasun osoz sar dezan. Haurren erlijio-hezkuntzari arreta eta denbora eskaini behar zaio famili bizitzan, nahiz eta era formalean ez egin. Askotan etxean ezin da gune edo une egokirik aurkitu haurraren fede-hezierarako. Baina, elkarri eguneroko bizitzako egoera eta esperientzien berri emateaz gain, suspertzen gaituzten fedezko uste sendoak eta arrazoiak naturaltasunez adierazten baditugu eta gure erlijio-jarrera eta sentimenduak agertzera ematen baditugu, fedearen egiazko komunikazioa gauzatzen joango gara, hori begiz ikusten ez bada ere. Famili bizitzan izan ohi dira esanahi berezia duten esperientziak, elkarrekin sakonki bizitako gertaera pozgarri eta mingarriak, bizitzaz dugun ikuskera sinesteduna agerian jartzeko une egoki izan daitezkeenak.

47. Otoitz-esperientzian lehenengo urratsak emateak aparteko esanahia du haurren esaera erlijiosoan. Jainkoari hitz egitea edota Jainkoarekin hitz egitea beraren aurrean jartzea da, eta ikusten ez badugu ere, gure bizitzan presente dagoela jakinik, harreman pertsonala eskaintzen digun Norbaitekin gaudela sentitzea. Egoera desberdinetan haren laguntza eskatzea edota eskerrak ematea, beraren seme-alaba garenokin hurbileko eta konprometitutzat hartzea da. Oso garrantzitsua da haurrekin batera apaltasunez otoitz egitea, eguneroko bizitzako egoera eta beharrianetatik Jainkoarekin hitz eginez. Familian denok batera egin ditzakegun eta, bestalde, Elizaren elkarre-otoitzean parte hartzeko baliagarri diren otoitz xumeak irakatsi behar dizkiegu. «Liturgi otoitzerako prestaera da familiako otoitza. Gainera kristau-elkartearen liturgi otoitzean eta ospakizunean parte hartzean senti daiteke eta adieraz dezake hobekien familiak, hau da, 'etxeko eliza' txikiak, Elizako kristau-elkarte handiaren atal bizi dela»¹⁶.

Era berean, gurasoek, beren eredu eta araez, jokaera-eredu eta jarraibideak ereiten dituzte beren seme-alaben bizitzan. Horrela, kontzientzia moralaren garapena hasten da, umeari baliozkoa dena eta gaitzesgarria edota desegokia dena bereizten lagunduz. Jainkoak guretzat nahi duen ona eta saihestu behar dugun txarra ikusaraztea, eta hori haur-bizitzan egoki ezartzen laguntzea, ez zorrotzegi eta ez lasai, oinarri ona da kristau-bizitzako heziera morala emateko.

Gaur egun guraso askok ez du erarik aurkitzen fedea seme-alabei naturaltasunez helarazteko. Batzuetan, argitu egin behar dute beren sinestedun-esperientzia, zalantza eta inkoherentziak gaindituz. Beste batzuetan, beren fedebizitzan sakondu beharra daukate, ideia eta jakintza batzuetatik, edota funtsezko sentimenduetatik eta ohiko jardueretatik, fedearen benetako bizipen

¹⁶ *Familia aurkitzea gaur egun*, 1996.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 96. zenb.

konprometitura igaroz. Eliz elkartearen laguntza behar dute kristau-heldutasunera iristeko eta seme-alabak fedean hezteko erantzukizuna bermeaz berenganatzeko. Baina ezin dute saihestu beren eginkizun ordezkazina, katekesiak edo erlijio-irakaskuntzak, besterik gabe, seme-alaben kristau-hezieran beren axolagabekeria ordezkaz dezentela pentsatuz.

Seme-alabak hazten direnean

48. Haurtzarotik adoleszentiara igarotzean, garapeneko aldaketa fisikoen gain, beste hau ere nabarmentzen da: gizaki horrek bere nortasun pertsonala bilatzen eta finkatzen diharduela, askatasun-guneak errebindikatu eta gero eta autonomoagoa den nortasuna pixkanaka osatuz. Eragin sakonak ditu gurasoekiko harremanetan, heziera osoan eta baita fedearen familiako komunikazioari dagokion guztian ere.

Adoleszentiako ezbaietan aurreko urteetan eskuratutakoak iraun egiten du, neurri handi batean; baina ohikoak eta, askotan, oso deigarriak dira atzean geratzen den haurtzaroarekiko haustura-zeinuak. Alderdi askotan, helduei aurkakotasuna erakusten diete, beren buruak berretsi nahirik; hazkunderako estrategia inkontzientea da. Prozesu honetan, gurasoek arreta bizia eskaini behar diete seme-alabei eta erabari aktiboa izan behar dute. Gaztetxo hauek arretaz eta isilean, baina zentzu kritikoz, begiratzen diete gurasoei, eta hauek, beste ezer baino lehen, ulermena eta beren uste sendoekiko testigantza koherentea eskaini behar dizkiete. Ez diote uko egin behar batzuetan zaila den elkarriketari; onartu egin behar dituzte berorien interpelazioak, eta arrazoizko erantzunak eman. Laguntzeko jarreraz eta leuntasunez, ikusarazi egin behar zaizkie gaztetxoek beren muga eta kontraesanak, aurretik helduenak ere aitortuz. Gauza guztien gainetik, zera itxaron behar dugu maitasun eta itzaropenez: beraiengan zintzoki erin izan dena helduko dela eta fruitua emango duela.

49. Familiak, maitasunaren loturarekin batera, batasunari eutsi behar dio, eta batasun hori indartzen saiatu behar du, egoera berezietan elkarrekin bizi izandako esperientzien bidez. Senitartekoen elkarrekin egindako otoitzean ere, eskuhartze eta adierazpen edo komunikaziorako era berriak bilatu behar dira. Une egokia izango da seme-alabak gazteen talde eta ekintzetan sar daitezen – parroki, ikastetxe edota kristau-mugimenduetan –, beren antzekoen erreferentziak eta heldu batzuen –laiko, erlijioso edo apaizen– gertuko laguntzak, familiarian eskaini zaizkien eredu eta jokamoldeak positiboki gara ditzaten.

Inoiz ez da bukatzen familiaren konpromisoa fedearen zabalkundean. Seme-alabak gaztarora heldu eta beren burujabetza iritsi dezatenean, beste era batekoak izango dira famili loturak eta komunikaziorako aukerak. Eta gazteenek beren nagusien egoera eta konpromisoak bizi ditzatenean, gogora ekarriko dituzte beren esperientziak, beren erantzukizun berriei, baita fedeari dagokionez ere, zuzen aurre egiteko asmoz. Nagusiengan antzemandako jokaera zuzenak errepikatzen eta akatsak zuzentzen ahaleginduko dira.

Gure garai honetan eta beste hainbat erakundek, bereziki hedabide sozialek, haur eta gaztetxoengan duten «heziera-eragina» gero eta nabarmenagoa den gizarte honetan, gurasoek eskubide dute, kristau-elkarreak argibideak eta

laguntza zehatza eskain diezaieten fedea transmititze-eginkizuna garatzeko. Famili pastoraltzako erakunde eta mugimenduak, parrokia eta ikastetxeek gain, plataforma egokiak dira laguntza-zerbitzu hau eskaintzeko.

II.- FEDEA TRANSMITITU INGURUMEN DESBERDINETAN

50. Famili bizitzaz gain, ingurumen jakinekin lotzen gaituzten egoera batzuetan parte hartu ohi dugu gutxi-asko. Gure lanbidean, lan-munduan, hiriko eta auzoko konpromisoetan, politika eta gizarte-kezketan, aisialdiko ekintza edo zaletasunetan,... harreman estu eta egonkorrak ditugu lagun askorekin. Harreman horien erdian eratzen da lagun-talderik hurbilekoena; hemen bizi ohi ditugu elkarrekin, eta batzuetan eztabaidatzen, eguneroko bizitza pertsonal nahiz sozialeko uste sendo, ideia eta esperientziak.

Ingurumen hauetan ere, fededunok geure fedea transmititu behar diegu besteei. Ez dugu proselitismoa egin behar, ez ditugu gugana erakarri behar, gure iritziz beraientzat ere baliozkoa dena eskaini baizik. Fedeak zentzu betea ematen dion, eta zorionaren eta oreka pertsonalaren iturria fedean aurkitzen duen gure bizitza, ezin dezakegu geure barnean ezkutatu, besteei transmititu eta besteen artean adierazi gabe. Fedearen dohaina Jainkoaren opari bezala arduraz onartzen dugunean, besteei ere hori aurkitzen lagundu behar diegula sumatzen dugu. Geure ibilbide eta esperientziatik, geure fedearen balioa eta zentzua besteei proposatzen saiatzen gara, beren askatasuna erabat errespetatuz.

Bizi-testigantza pertsonala

51. Lehen aipatu dugunez, besteen egoera berberetan konprometituriko bizitzaren hurbiltasunetik soilik eskain diezaietegu besteei testigantza esanguratsua. Horregatik, fedea arduraz bizi duen sinestedunaren lehenengo baldintza, iheskeriarik eta anbiguotasunik gabe, bere ingurumenean sustraiturik eta berekin konprometiturik bizitzea da. Konpromiso horretatik, bultzagarri eta sustagarri dituen balioak erakutsiko ditu, bere jarrera pertsonalen bidez: bereziki solidaritatea, zerbitzuzko espiritua, autokritikarako gaitasuna, itxaropen eta eroapen-jarrera, adiskidetasunezko eta geure arteko desberdintasunei zor diegun errespetuzko jarrera... Hitzez baino gehiago egitez adieraziko du, bere bizitza adoretu eta bateratzen duen arrazoia erakargarritasun eta balio erradikala. Era horretara bizitzera eta zoriotsu izatera bultzatzen duenari buruzko jakin-mina piztu dezake eta zenbait galdera sortu.

Dena dela, ez dira nahasi behar testigantza eta «fedea exhibizionismoa». Sinestedun bezala bizitzea ez da testigantza emateko egiten, besteei «ikus dezaten», alegia. Jainkoaganako leialtasunagatik bizi dugu fedea bere ondorio eta konpromiso guztiekin, eta horrela gizaki bezala geure osotasuna eta fededun bezala geure zorientasuna iristen ditugulako. Bizitzako zorientasun eta zentzu horiek ez gaituzte lotsarazten, eta agerian bizi ditugu, lotsarik eta harrokeriarik gabe, gardentasunez. Kristauak ez du bere testigantzaren argia ezkutatu behar, «zuen gintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten» (Mt 5,16).

52. Kristauon jardun-leku diren ingurumenak era askotakoak diren arren, gure gizartean eta bizi dugun garaian kristau guztiontzat saihestezinak diren jarrera eta konpromiso batzuk nabarmen daitezke. Baliagarritasuna eta eragin-kortasuna nagusi diren testuinguru sozialean, beharrezkoa da gizakien nagusitasun eta duintasunaren alde jokatzera eta manipulazio orori uko egitea, edozein izanda ere jokaera hori zuritu nahi duen arrazoia. Kristau-fedeak ikuskera guztiz gizaeratzailera eskaintzen digu; Jesu Kristoren Ebanjelioan gizakiaren benetako aurpegia ezagutarazten zaigu¹⁷.

Ongizatearen gizartea deiturikoaren erdian pobre eta baztertuen gune handiak daude, kristauoi Jesusekin bat egitea, ahul eta kaltetuenen alde jartzea eta konpromiso askatzailea eskatzen diguten guneak. Gaixok, etorkinek, zaharrek,... beren haragian nolabaiteko pobrezia edo bazterketa sufritzen duten guztiek, egia bihurtua ikusi behar dute, oraintxedanik, sinestedenen bizitzan Ebanjelioko esaldi hau: «Azkenengoak lehenengo izango dira».

Gure herriko gizarte-bizitza puskatzen duen indarkeriak gogor astinduta, aspertu gabe eta gogotsu jarraitu behar dugu gizaki ororen funtsezko eskubide den biziaren, askatasunaren, bakearen eta zuzentasunaren defentsaren aldeko konpromisoan. Geure kristau-nortasunetik, lan eta otoitz egin behar dugu itxaropentsu eta bakearen Ebanjelioaren eskakizunei zintzo erantzunez, baketzearen eta adiskidetze sozialaren alde.

Demokraziaren berariazko politika eta sozial aukera anitzak errespetatuz, gizarte pluralistan kristau bakoitzak tolerantzia eta elkarrizketarako gaitasuneko testigantza eman behar du bere konpromisoetan, guztion onaren zerbitzuan. Gizarte eta kultura sekularizatuan, fedeak, beste garai batzuetan baino gehiago, fededunen konpromiso eraldatzailea eta bizitza publikoko partehartzea bultzatu behar ditu gaur egun. Inkomunikazio eta borrokarako joera duen gure gizartean, elkarrizketa bultzatu behar du, elkar ulertzearen bide zuzen eta egonkorreantz abiatzeko.

Mugimendu apostolikoak eta laikoen era askotako elkarteak dira eliz bide-rik egokienetakoak, fededunengan ingurumen-konpromisoa eta presentzia piztu eta berorien bidelagun izateko. Berorietan aurki ditzake fededunak beharrezko heziketa eta metodologia, kristau-motibazio eta nortasunaren arabera jarduteko. Gure Elizek erabakiz bultzatu behar dituzte ebanjelizatze-plataforma horiek, guztiz beharrezkoak dira-eta ingurumenetan eta bizitza publikoan fededunen presentzia gogotsua suspertu eta mantentzeko.

Geure itxaropenaren arrazoia eman

53. Fedearen testigantza konprometituak inoiz sortarazten dituen galderak, zuzenean berari egindako interpelazio gertatzen zaizkio bere bizieraz galdera horiek eragiten dituenari. Orduan fededuna horrela sinesteko eta horrela bizitzeko dituen zergati eta arrazoiak berri eman beharrea aurkitzen da. Biziaz dugun ikuskera besteei jakinarazteko aukera da, zoriontsu egiten gaituenaren berri emateko eta gure erabaki eta konpromisoak hartzera eramaten gaituzten uste on

¹⁷ *Gizonaren egiazko aurpegi bila*, 1987.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia.

sakonen argira apaltasunez erantzuteko aukera. Jesu Kristoren Jainkoagan sinesten dugula iragartzeko aukerarik onena da: «Jesu Kristo berpiztuagan bakarrik ikusten dugu kristauok era guztiz garbian, San Paulok 'itxaropenaren Jainkoa' deitzen dion Jainko hori (Erm 15,13). Jainkoak Kristo hilen artetik piztearekin agertu duen ahalmena eta indarra ezagutzean, orduan ezagutu dugu, baita ere, 'nolakoa den haren deiaren itxaropena' (Ef 1,18-20)»¹⁸.

Fedea bizitzeak ez du esan nahi iraganean zainak botata egon behar dugunik, orainari itxaropenez aurre egitea baizik, izan ere «fedea, itxaroten dena lortzeko segurtasuna da» (Heb 11,1). Komunikazio hau elkarrizketa xumean eta hizketa errazean egiten da, geure esperientzia eta gogoeta pertsonalen berri emanez. Harreman pertsonal eta zuzenean gertatzen da, hitzaldi handirik gabe. «Egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoia eskatzen dizuenari erantzuna emateko; baina egizue apaltasunez eta errespetuz, kontzientzia garbiz jokatzuz» (1 Pe 3,15).

54. Eguneroko bizitzan bizitzaren zentzuari eta fedearen ikuskerari buruzko esperientzia bereziki esanguratsuak elkarbanatzean ditugu besteekin. Aita edota ama izatearen esperientzia lehen aldiz bizitzea, seme-alabei hazkundeko aldi desberdinetan jarraitzea, aparteko uneak dira gurasoentzat; une horietan zabaldu egiten dira barneko guneak eta sentikortasun biziagoa sortzen da fedearen zentzu eta interpelazioari buruzko galderaren aurrean. Badaude, baita ere, nabarmenki eragiten diguten beste errealitate batzuk: gaixotasun eta oinazearen esperientzia, bakardade eta heriotzarena. Geuri gertatzen zaizkigunean, agerian jartzen dituzte gure mugak, eta kolokan jartzen dituzte gure biziera arduragabea edota ohikeriazkoa, eta biziaren zentzuari buruzko galderaren aurrean eta fedearen atarian kokatzen gaituzte.

Erantzukizun pertsonal berriak hartzeak edota egoera berri edo konprometituak azaltzeak ere biziaren zentzuari buruz sakontasunez hausnartzera eramaten gaitzakete. Zuzengabekeriari eta gezurrari kontra egiteak ere aukera ematen digu, atsekabea edota gure egoeraren inguruko gogoeta sakona egiteko. Kasu hauetan, fedetik itxaropena zabaltzen duen norbait hurbiltzen zaigunean, edota argia ematen duen, eta aukerak eskaintzen dituen norbait eta hori ez teoriatik, bere bizitzako esperientziatik baizik, orduan sinesteko eta itxaropena izateko arrazoi eta bideak antzeman daitezke.

III.- ELIZ ELKARTEAREN EKINTZAK

Ebanjelioaren misiolari-iragarpena

55. Eliz elkarte osoa, Eliza, da kultura jakin batean parte hartzen duten gure garaiko gizon eta emakumeei Jesu Kristoren Ebanjelioa fedearen iturri eta euskarri bezala helarazteko erantzukizuna duena. Gaur egun asko dira, Ebanjelioa, beren bizitzarako benetako Berrion bezala duen indar guztiarekin, berraurkitu beharrean dauden bataiatuak. Ezagutzen dutela uste dute, baina «entzutez» bakarrik ezagutzen dute. Ebanjelio horretan ez dute aurkitu zoriontasun, gizatasun

¹⁸ *Jesu Kristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, 1986.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 45. zenb.

eta askatasun betera deitzen gaituen Jainkoaren iragarpena, fedearen esperientziatik, ikuspegi berri batean geure buruaren jabe izatera deitzen gaituena. Beste askok, berriz, gure gizartean azkenaldi honetan ugaritzen ari diren askok, Jesu Kristoren iragarpena ez dute lehenengo aldiz ere entzun.

Lekuko gure Elizak oraindik ez daude behar bezain kontzientziaturik eta prestaturik egoera honen aurrean. Denok jabetu behar dugu fedearen misiolari-iragarpenaren garrantziaz gure Elizetako ebanjelizatzeko-ekintzan. Gure pastoral ekintza eta zerbitzuetako asko ikuspegi berrian kokatu beharrean gaude, fedearen bila lehenengo urratsa eman behar dutenen edota fedea era berrian, biziago eta konprometituago, aurkitzeko laguntza behar dutenen beharrezanean egoki erantzuteko.

Elkarteko kide guztiek lagundu behar dute fedearen benetako misiolari-ekintzan eguneroko bizitzan, testigantza eta komunikazio pertsonalaren bidez. Kristau laikoen konpromiso ekintzailea ordezkatzeko da eginkizun honetan. Hauek guztiek heldutasuna iritsi behar dute sinestun bezala, eta kristau-elkarteak eskainiko die horretarako laguntza. Elkartearen laguntasuna behar izango dute, baita ere, erantzukizun hori familian, ingurumenetan, bizitza publikoan edota Elizan bertan gauzatzeko.

Honela dio Joan Paulo II.ak: «Errukarria ni, Berriona hots egingo ez banu!» (1 Kor 9,16) oihukatzen zuen Pauloren sentipen larria berpiztu behar dugu geugan. Gar honek 'aditu' gutxi batzuen esku utzi ezingo den eta Jainkoaren Herriko kide guztien erantzukizuna eragingo duen misiolari-ekintza berria piztuko du Elizan. Kristo benetan aurkitu duenak ezin du beretzat bakarrik gorde, iragarri egin behar du. Ezinbestekoa da horretarako, kristau-elkarte eta taldeen eguneroko konpromisotzat hartu behar den bultzada apostoliko berria»¹⁹.

Fedearen bila diharduenari harrera ona egin eta ibilbidean laguntzea

56. Kristau-elkarteetan harrera-guneak sortu edota bultzatu behar dira, fedeari arduratzen direnei bilaketa-ibilbidean laguntzeko eta beraien ondoan egoteko. Gero eta gehiago dira, esperientzia eta kezka pertsonalen eraginez bilaketa-jarreran daudenak, batzuk iraganean sinestun izan eta gero kristau-bizitza eta elkartetik aldendu ondoren. Errespetu eta ulermenezko jarreretatik, onartu egin behar ditugu berauen planteamendu eta galderak, zalantza eta erreparok. Zerregin hau bakarka eta buruz buru egitekoa da, edota gehienez ere talde txikietan, segizio pertsonalizatua eskatzen duelako. Ez dago aurrez ezarritako egitaraurik; pertsona bakoitzaren ibilbideak ezartzen ditu, kasu bakoitzean, gaiak eta erritmoa. Aldi honen ostean, beren egoera eta beharrezanean moldaturiko elkarteko katekesi-prozesuren batean sartu ahal izango dira.

Harrera hau gauzatzeko, berariazko pastoral ekintzaileak, behar bezala gaitutako ekintzaileak, behar ditugu. Fedearen esperientzia bizia duten gizon eta emakumeak behar ditugu; kristau-fedearen mami funtsezkoaren sintesia argita-

¹⁹ *Novo millennio ineunte*, Joan Paulo II.aren Gutun apostolikoa (2001-I-6), 40. zenb.

sunez zehazteko gauza direnak; komunikaziorako gaitasun pertsonal apal eta lagunkoia dutenak; Espiritua besteengana etor daitekeela eta horiengan jardun dezakeela ulertzen dutenak. Bideratu eta lagundu nahi dieten horien giza mailari, eta adimen- eta espiritu-mailari moldatzeko malgutasunarekin. Gure elizbarrutietako Katekesi-arloek, motibatu, hezi eta lagundu egin behar dituzte fededun hauek, fedearen komunikazioari eskaintzen dioten zerbitzuan.

Kultura ebanjelizatzea

57. «Ebanjelioa eta kulturaren arteko apurketa da, zalantzarik gabe, gure garaiko zorigaitza, beste sasoi batzuetan izan zen bezala»²⁰. Lekuko gure Elizek kultura-munduko esparru nabarmenetan ere bultzatu egin behar dituzte kristau-fedearen adierazpenak. Berezi unibertsitate katolikoetatik, Teologia fakultateetatik, Erljio Zientzien, Pastoraltzaren edota Biziera erlijiosoaren elizbarrutietako institutuetatik bideak eratu behar dira, fedea eta kulturari buruz topaketa eta elkarrizketak egiteko, batez ere gaurkotasun eta interes berezia duten arazo zehatzak aztertu ahal izateko. Elkarrizketarako gune horiek aukera ona dira aldenduta egon eta jakin-mina duten pertsonentzat, kristau-fedez duten irudi eta balorazioa arazteko eta aberasteko, eta sinestearen aurrean dituzten aurkakotasun batzuen hutsaltasunaz argiago jabetzeko.

Gure garaiko kulturaren hainbesteko hedapena eta eragina duten gizarteko hedabideen kristau-pentsamendua azaltzea ere guztiz baliagarria da fedearen zabalkundeari laguntzeko. Elizaren bizitza eta gaurkotasunaren berri ematea baino gehiago, era guztietako giza egoera eta errealitateei dagozkien kristau-balioen komunikazioa egitea da esanguratsua. Egungo gaitan giza eta zientzi mailan prestatuen dauden fededunek eta hedabideetan lan egiten duten kristau-profesionalek bide horretatik lagundu behar diote fedearen zabalkundeari gure kulturaren.

Kristau-sarbidea eta katekesia

58. «Kristau-sarbidea hiru sakramenturen bidez osotzen da: bizitza berriaren hasiera den Bataioa; bizitza berri horren finkatzea den Sendotza; eta Beragana bihurtzeko, ikaslea Kristoren Gorputz eta Odolaz janaritzen duen Eukaristia»²¹. Kristoren misterioan sartzea, fedearen bizitzan hazten eta heltzen laguntzen duen katekesi-ibilbideari lotua dago. Izan ere, «katekesia kristau-sarbideko osagai nagusia da eta sarbide-aldiko sakramentuei estu lotuta dago»²². Sakramentuen ospakizunaren aurretik, hauekin batera edota hauen ostean ematen den katekesiaren bidez, katekesi-hartzaileak Jainkoa aurkitzen du eta Berari lotzen zaio; salbamenaren misterioaren ezagutza eskuratzen du; Jainkoari erantzuteko eta, pixkanaka, pentsamolde eta ohiturez aldatzeko konpromiso pertsonala sendotzen du; eliz elkarteak lagunduta, bere fedea oinarritzen du.

²⁰ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa (1975-XII-8), 20. zenb.

²¹ *Eliza Katolikoaren Kristaubidea*, 1275. zenb.

²² *Katekesirako Argibide Orokorrak*, Apaizentzako Kongregazioa (1997), 66. zenb.

Gaurko egoeran, kristau-sarbideko ibilbide osoak gogoeta arretatsua eska-tzen du bere esanahiari eta gauzatzeari buruz. Helburu horrek gainezkatu egiten ditu Pastoral Idazki honen asmo eta aukerak. Gotzainen Batzarrak oraintsu aur-keztu ditu berari buruzko gogoeta eta argibideak²³. Gure elizbarrutietako Elize-tako batzuk pastoral argibide eta araudi berriak dituzte. Oraindik etorkizunean urrats berriak eman beharko ditugu, beroriek aztertu eta argitzeko.

Kristau-sarbideak, gure artean gehienetan gauzatzen den moduan, hu-tsune eta akats ugari ditu berekin. Sarbideko hiru sakramentuak, Bataioa, Sen-dotza eta Eukaristia, alegia, bizitzako aldi zabaletan sakabanaturik ospatzeak eragotzi egiten du sarbide-prozesuaren batasuna. Sarbideari dagokion katekesi-prozesuaren zatiketak eta kasu batzuetan prozesu hori sakramentu aurreko ka-tekesi hutsetara murrizteak, sarbidearen desartikulazioa eta pobretzea dakar-tzate. Sakramentu hauen ospakizuna inguratzen duten gizarte-baldintzek indar-gabetu egiten dute sarritan beren esanahirik sakonena. Ondorioz, bataiatu asko bere fedearen gutxieneko heldutasun pertsonala iritsi gabe hazten da; ez dute iristen kristau-bizitzan benetan sarbidea egiterik.

59. Fedeari atxiki ondoren, Ebanjelioaren lehenengo iragarpenaganako eran-tzun bezala, «hasierako fedea heldutasunera eramatea eta benetako ikaslearen heziera ematea»²⁴ da katekesiaren helburua. Gure egoeran, katekesiak aurretiko misiolari-iragarpenaren gabezia edota eskasia osatu behar du. Horregatik aipa-tzen da katekesiaren misiolari-alderdia, helduei, gazteei zein haurrei dagokie-nez.

Katekesiak, gaur egun, zeregin garrantzitsua izan behar du gure Elizetan, bereziki helduen esparruan. Bataiatu gehienek beren bizitza pertsonal eta sozia-laren testuinguruan kokatu behar dute berriro fedea. Bizitzan bertan berraur-kitu behar dute beren sinistedun izatea ondorio guztiekin. Beharbada, askok eta askok fedearen eredu eta arauak ikasi zituzten egun batean, baina orain fede hori bizi egin behar dute eta Jainko biziarekiko bategite pertsonalaren poza es-perimentatu. Katekesiaren laguntzarik gabe, ez dira sentsibilizatuta eta gaituta egongo beren fedea beste batzuei helarazi edo komunikatzeko.

Gazteruari dagokionez, lekuko gure Elizek berariazko katekesi-prozesua –oraindik ez duguna– eratu behar dute, beste ekintza misiolari edo pastoralekin batera, gazteen fedearen zerbitzura ibilbide osoa uztar dezan. «Gaurko baldin-tzen arabera, egunez egun premiazkoagoa dela antzematen da katekumenotza erako katekesi-irakaskuntza, graziak ukiturik, pixkanaka Kristoren irudia be-renganutzen duten eta Berarekin bat egiteko beharra sentitzen duten gazte eta heldu ugarirentzako»²⁵.

Haurren katekesiak familiaren partehartze ekintzaileagoa lortzen ahale-gindu behar du bere ibilbidean. Kristau-elkartearen aldetik, guztiz beharrezkoa da erlijio-esaeraren aurreko aldian gurasoei laguntzea. Beharbada, hauxe izan

²³ Espainiako Gotzainen Batzarra, *Kristau-sarbidea. Gogoetak eta argibideak*, Edice (Madril 1998).

²⁴ *Catechesi tradendae*, Joan Paulo II.aren Aholku-idazki apostolikoa (1979-X-16), 19. zenb.

²⁵ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa (1975-XII-8), 44. zenb.

daiteke beharrizan berrietako bat: katekesi-arloko irakasleren batek argibideak eta laguntza eskaintzea gurasoei, elkartean seme-alaben katekesi-hezieran bide-lagun izateko duten berariazko eginkizunean. Beste alde batetik, haurren katekesi-ibilbideko aldi desberdinak beren osotasunean garatu behar dira, haurrek Eukaristian lehenengo aldiz partehartzea ez dadin bere helburuarekin nahasi eta azken jomuga bihurtu.

60. Edozein eratako katekesiak kristau-mezuaren laburpen egokitua eta gaurkotua transmititu behar du, eta, batez ere, esperientzia, kristau-heldutasun eta hazkunde prozesuan integratu; fedearen hizkuntza ulermen eta komunikazio-gaitasunari moldatu eta Elizaren tradiziozko eta elkarteko adierazpenen esanahiaren hastapenak irakatsi; Jainkoaren Hitza ezagutzen eta entzuten lagundu; otoitz pertsonal eta bateratuaren esperientzian eta Eukaristiaren eta sakramentuetako liturgi ospakizuneko parte hartzen lagundu; kristau-bizitzarako mailakako konpromisoa bideratu eta suspertu.

Gaur egiten den kristau-sarbidearen kalitatea hobetzeko beharrezko da, Bataioak kristau-bizitzan duen funtsezko garrantzia eta, ondorioz, seme-alaben fedean benetako hezkuntza bermatzeko gurasoen konpromisoa azpimarratzea. Gero eta ohikoagoa da haur batzuk haurren katekesiko ibilbidean zehar Bataioa eskatzea. Honelako kasuetan, katekesi berezia eman beharko litzaieke haur horiei eta berorien gurasoei. Sendotzaren aurreko sarbide-aldia ere aparteko arreta eta sakontasunez garatzea komeni da. Aldi honetan, gazteek badute gaitasunik fede-aukera beren nortasunean integratzeko eta, sarbidea egin dutenei dagokienez, kristau-fedearen konpromisoak berenganatzeko.

Badira gazte eta heldu batzuk, oraindik asko ez izan arren gehituz doazena, bikote-harremanek susperturik edota fedeari buruzko galderak egiten dizkion seme nahiz alabak bizkorturik, Sendotzako sakramentuaren prestaerarako katekumenotza-ibilbidea egiteko prest daudenak eta gai eta metodologia bereziak dituzten prozesuak eskatzen dituztenak berentzat. Bada honetan hainbat esperientzia, denbora gutxikoa izanik ere, adoretu, hobetu eta zabaldu egin behar dena.

Bataiatu gabe daudenei –eta aurrerantzean askoz gehiago izan daitezke hauek– kristau-bizitzan benetako sarbidea emateko, oso egokia izan daiteke lekuko gure Elizetan katekumenotza ezartzea, Vatikanoko II. Kontzilioak aipatzen duen bezala²⁶.

61. Beren sinestedun-bizitzaren kalitate eta koherentziarekin zuzeneko zerikusia duen eginkizun arduratsua eta garrantzitsua dute, beraz, katekistek. Irakaspen zerbitzuaz gain, beren fede-bizitzaren testigantza eskaini behar dute. Hauxe da beren egitekoa: bizitza katekesira eramatea, kristau-elkartearen izenean bere zerbitzua eskaintzen dienen bakarkako eta taldeko egoerez eta baldintzez arduratuz. Uztartu egin behar ditu bere jardueran, jakintzak komunikatzea, jarrerak esnatzea, otoitz-esperientzia eta Hitza entzutea, alde batetik, eta kristau-bizitzako konpromisoak gauzatzea, bestetik. Esker onez aitortzen dugu, milaka katekistek gure elizbarrutietako Elizetako kristau-elkarteetan egiten duten es-

²⁶ Ikus *Sacrosanctum Concilium*, 64. zenb.

kaintza aparta. «Neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa» (Lk 6,38) emanek eskertuko die Jainkoak, Berak bakarrik dakien bezala.

Gure elizbarrutietako Katekesi idazkaritza eta ordezkarietarako, bereziki haurren eta helduen alorrekoek, aztertuta dute ibilbideen diseinua, eta ibilbide horietan erabili behar diren lagungarriak berriztatzen dihardute, gaurko egoera kontuan harturik. Horrela, oso laguntza ona ematen dute, sinestodun guztiak fedea transmititzeko beren erantzukizunean sentiberago izan daitezzen eta, era berean, erraztu egiten dute besteei egin beharreko komunikazio hori. Katekisten heziketa dela eta, beste Pastoral Idazki batean eskatzen genuena errepikatzen dugu berriro. «Lagun iezaiezue kristau-mezuaren ikuspegi argia izaten funtsezko edukiei dagozkienetan (apostoluen Kerigma); erakuts iezaiezue topa-guneak aurkitzen, gaurko gizakiak dituen beharren eta fedea eskaintzen dituen erantzunen artean; hizkera berriak erabiltzen erakuts iezaiezue, leialtasunez aurkez dezaten fedearen betiko mezua era ulergarriagoan eta onargarriagoan»²⁷.

Irakaskuntzaren munduan

62. Lehen gogoratu ditugu fedearen transmisioak eskola-esparruan berekin dituen zailtasunak. Baina zailtasun horiek ez dituzte erlijio-irakasketaren balioa eta irakasleen zeregin garrantzitsua deuseztatzen. Lehen eta bigarren irakaskuntzako ikastetxeetan, Eskolako Erlijio Irakaskuntzari esker, beraz borondatez hautatzen dutenek teologia katolikoaren funtsezko jakiteen sintesi-egokia eskura dezakete, maila bakoitzari dagokion moduan. Erlijioa gure garaiko kultura eta gizarte-jakintzen multzoan sartzeko bidea da. Ikasturtez ikasturte, Biblia, Elizaren historia eta fedearen testigu nagusien irudia ezagutzeko aukera ematen da. Kristau-tradizioaren hizkuntza eta adierazpen artistiko desberdinak ulertzeko abagunea ere izaten da. Bestalde, kristau-balioak aurkezten dira, bereziki gure garaiko gizon-emakumeentzat eta kulturarentzat esanguratsuenak direnak. Hau ez da, ordea, elkarteko katekesia, eta ez du beraz ordezkatzeko, osatzen baizik. Garrantzi handikoa da, haur, gaztetxo eta gazteen hezkuntza-prozesuan kristau-erlijioaren kultura giza zientziekin uztartzeko.

Eskolako Erlijio Irakaskuntzako berriazko irakasleek ardura eta arreta profesionalaz egiten duten lanak era berezian laguntzen dio fedearen transmisioari. Erlijioaren ikasgela da, bereziki bigarren irakaskuntzan, gaztetxo askori fedeari buruzko elkarrizketan bete-betean esku hartzeko aukera ematen dien leku bakarra. Pedagogia ekintzaile eta pertsonalizatua oso onuragarria izan daiteke erlijioaren aurrean interesa pizteko, berregituratze eta hazkunde pertsonaleko urte zail hauetan.

63. Kristau-ikuspegiko ikastetxeek ekintza guztietara zabaltzen dute fedearen erreferentzia. Egitarau ofizialak behar bezala errespetatuz, giza zientzien arloari kristau-ikuspuntuen integrazio osoa gehi diezaiokete bereziki. Ekintza akademikoen gain, kultura-bizitzako adierazpen anitzetan fedearen bizipen osoa eragin dezaketen hezkuntza eta ospakizun-ekintzak garatzeko aukera dute.

²⁷ *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*, 1994.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 93. zenb.

Ikastetxe hauek, ikasle, irakasle eta ikastetxeko titularrekin batera, hezkuntza-elkartean partaide diren gurasoen erantzukizuna gogotsuago integrazteko erronkari aurre egin behar diote gaur egun. Bestalde, seme-alabekiko hezkuntza-harremana hobetzen lagun diezaiekete gurasoei, baita fedearen zabal-kundean ere, egiatzko «guraso-eskola» eratzen duten era askotako zerbitzuen bidez.

64. Erlijioa unibertsitatean ere azaltzen da, Irakasle Eskoletako irakasgaietako hautazko osagarri bezala. Presentzia hau garrantzitsua da, beharrezko baldintza eta heziketa-bide bihurtzen delako, gero irakaskuntza hori lehenengo mailan eta bigarrenengoaren etaparen batean emango dutenentzat.

Unibertsitate Pastoraltzako elizbarrutiko ordezkarietzek, ikasle eta irakasleentz, Campus desberdinetan ebanjelizatze-presentzia eta konpromisorako ekimenak eragiten dituzte ingurumen horretan. Gure elizbarrutiei dagokie unibertsitatearen esparru zabal honetan ekintza sakonagoa, zuzenagoa eta hobeto bildua garatzea. Elizaren unibertsitateek elizbarrutiekin lankidetzan jardun behar dute ekintzarako egitarauak eratzekoan, ekintzaileak prestatzekoan eta lokal eta baliabideak atontzekoan.

Gazteen pastoralta

65. Fedearen transmisioari dagokionez, aparteko garrantzia du gaur egun gazteen pastoraltzak. Aipatu dugu gazteentzako berariazko katekesi-prozesuaren beharra, baina, honen aurretik eta honekin batera, beste misiolari eta pastoral ekintza batzuk egin behar dira gazteekin. Eliz elkartetik aldentuta dauden gazte gehienengana iristeko, benetako misiolari-ekintza bultzatu beharko dugu, eta fededun gazteek aparteko erantzukizuna eta protagonismoa izan behar dituzte ekintza horretan. Beraiek eskainiko dute inork baino hobeto Ebanjelioak gaurko gazteriaren sentsibilitate, kezka eta arazoentzat duen esanahiaren testigantza bizia.

Gazteen artean ere badaude kristau-fedez arduratutako pertsonak eta taldeak. Kritikoki bilatzen dute fedearen egiatzko bizipen konprometituagoa, zorrotzak eta eskuzabalak dira Jesusengan aurkitu duten ereduarekin leialtasunez jokatzeko. Eguneroko beren bizitza kontraesanez betea egon arren, ikusten dituzten bidegabekeria eta bazterketazko gizarte-egoeretan Ebanjelioa hedatzen saiatzen dira. Kristau askoren bizitzan sumatzen den koherentziarik eza ikusten dute eta zorrotzasunez kritikatzin. Atsegin dituzte taldeak beren kezka eta esperientziak elkartean bizitzeko eta Elizari gunea eskatzen diote protagonista ekintzaileak izateko. Beren kristau-konpromisoa gauzatzeko aukerak bilatzen dituzte, bereziki kaltetuenei lagunduz. Batzuk guztiz sentibera dira beren inguruan sumatzen duten erlijio-axolagabekeriako egoeraren aurrean, eta beren bizitzak adoretzen dituen fede-testigantza eman nahi dute beraietan.

Gazteriaren berariazko ezaugarriek, erradikaltasunak, inkonformismoak, idealismoak, Jesusen irudi erakargarria ausardiaz aurkeztera eta Ebanjelioaren balioen eskakizunak erabakiz proposatzera bultzatzen gaituzte. Joan Paulo II.a Aita Santuak zera idatzi du oraintsu: «Guztiei egin behar zaie konfiantzaz Kristoren proposamena. Helduei, familiei, gazteei, haurrei, denei zuzendu behar

zaie, Ebanjelioaren mezuaren eskakizun erradikalenak inoiz ezkutatu gabe, eta sentsibilitate eta hizkuntzari dagokienez bakoitzaren eskakizunei erantzunez, Pauloren ereduaren arabera: 'Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko' (1 Kor 9,22). Hau guztia gomendatze-koan, gazteen pastoraltzan pentsatzen dut batez ere»²⁸.

66. Besteen aldeko zerbitzu-bizitzako konpromisoagatik erakargarriak izan daitezkeen fedearen testiguen ezagutza eta, ahal den neurrian, beraiekiko harreman pertsonala eskaini behar diegu gazteei. Erreferentzi eredu zehatzak behar dituztenez, sakontasunez bizitako fedearen erakargarritasuna aurki dezakete beraiengan.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, gazteek, teoria edota jakintzen gainetik, bizi-espereziak bilatzen dituztela, ekintzara jo nahi dutela. Fedea oinarri harturik, besteen aldeko, bereziki makalenen aldeko, ekimen zehatzetan konprometitzeko aukera eman behar diegu.

Taldeak sortu eta suspertu behar ditugu, gazteek beren kristau-bizitzako esperientziak elkarren artean truka ditzaten. Eta, aldi berean, talde horiek kristau-elkarte zabalagoan sar daitezten lan egin behar dugu, bertan sinestedenen belaunaldi desberdinek elkarri lagundu eta elkar interpelatzen dutelako. Gazteen taldeek gogotsu esku hartu behar dute gure kristau-elkarteen beharrezko berriztapenean. «Baina, gainera, gazteek, fedean hezita zein otoitzean sustraituta, gazteriaren apostolu bihurtu behar dute gero eta gehiago»²⁹.

Ondotxo ezagutzen dituzte egoera hauek guztiak, eskaintza eta ilusioz beterik, gazteen pastoraltzan laguntzaile eta suspertzaile bezala jarduten dutenek parrokia, ikastetxe, elkarte eta mugimenduetan. Beraiek bizi dituzte inork baino hobeto, zuzen-zuzenean, gaurko gazteei fedearen sarbidean eta bideko laguntzan sumatzen dituzten zailtasun, makaltasun eta pozak.

67. Bideratu behar ditugun gazteen fede-makaltasunen artean, otoitz-espereziaren gabezia nabarmentzen da. Nahitaezkoa da beren federako, gazteei bakarkako eta elkarteko otoitzaren hastapenak sakonki, sistematikoki eta pedagogikoki irakastea. Beren sentsibilitatea gozatzen duen Jainkoarekiko harreman intimistatik, beren bizitza osoa interpelatzen duen eta beren konpromisoa sustatzen duen Jainkoarekiko harreman bizigarrira igarotzen lagundu behar diegu.

Fedean heldutasuna iritsi dutenek gure gazteei fededun-bizitzan laguntza pertsonala ematea, hori da ahalegin handia eskatzen duen beste pastoral jardura bat. Pastoral zerbitzu garrantzitsu honek ikaragarri laguntzen du fedea pertsonalizatzen eta fede hori Jainkoak gazte bakoitzaren bizitzarako duen aparteko egitasmoa entzutearen eta bilatzearen zerbitzura jartzen. Laburbilduz: kristau-bizitzaren bokazio-zentzua sendotzen du.

Gazte-talde askok eta askok ez du ideario zehatzik, ez eraturiko heziketa-egitasmorik, eta kristau-nortasun makal eta lausotua duten neska-mutilez oso-

²⁸ *Novo millennio ineunte*, Joan Paulo II.aren Gutun apostolikoa (2001-I-6), 40. zenb.

²⁹ *Evangelii nuntiandi*, Paulo VI.aren Aholku-idazki apostolikoa, (1975-XII-8), 72. zenb.

tuak daude. Gazteen artean ohikoak diren arren zalantzak eta gorabeherak, gure gazte-taldeak ezin dira zehaztasunik gabe eta zalantza artean dabiltzan taldeak izan; ezin dira fede sendoagora bideratzen ez duten bat-bateko bideetan ibili. Horrelako makaltasunekin, normala da beraietako askok izate motel eta eskasa izatea. Talde sendo egin nahi baditugu, helburu eta bide landuagoak izan beharko dituzte.

Gazteen kristau-taldea ezin daiteke beretzat soilik izan eta, nolabaiteko neurritxo batean, Jesusentzat eta kristau-elkartearentzat. Elkarteko kide izatea nortasun-zentzuaren osagarri garrantzitsua da. Pertsonak ez daki nor den, bera norena eta nongoa den jakin arte. Oinarrizko puntu horiek argitzea behar-beharrezkoa da. Estilo bereko gazte-taldeen multzoei parroki, elizbarruti eta Eliza unibertsaleko elkarte nagusiko kide izaten laguntzeak, gure gazte-taldeen egonkortasuna sendotzea esan nahi du, eta berorien kristau-kalitatea hobetzea. Kristau-taldearen barne-lokarria ezin daiteke «elkarrekin egon beharra» izan. Gazte-taldea ez da txoko intimista bat; elkarrekin bizi duten egitasmoarekiko lotura behar dute.

Funtsezko balio hauek guztiak lantzeak «mistika» jakin bat ematen die taldeei. Honek, ondorioz, balio horiei gogotsu atxikitzen eramatzen ditu gazteak, eta balio horietan bizi, jaso eta elkarbanatzen dena estimatzen. Horrelako taldea ez da gazte marjinalak biltzen dituen «hondakina», konpartitzen duten fedea harrokeria eta lotsarik gabe eskaintzen duen kemenez beteriko «hondarra» baizik.

«Mistika» honek, sanoa denean, desberdin sentiarazten ditu, baina ez beren gazte-belaunalditik bananduta. Ez die «garbi» edota «aukeratu» izatearen kontzientzia ematen; baina, egia da, beste lagun batzuek jaso izan ez duten gauza baliotsu bat jaso izanaren uste pozgarria ematen diela; garbi ikusten dute, gainera, beste gazteekin sentsibilitate eta balio berdin batzuk konpartitzen dituztela, baina ez datozela bat beroriekin, garbi-garbi Ebanjelioaren aurka dauden beste balio batzuetan. Beren belaunaldiarekin duten benetako elkartasunak ez du ezabatzen berorien makaltasunei buruzko kontraesana.

Misio «mistikoak», azkenik, beste lurralde, herrialde eta kontinente batzuetako kristau-gazteekin otoitz, jai eta konpromiso-giroan bat egitera daramatza. Sarritan, ohiko gazteen esparruan gainbehera doan eta eragin berezirik ez duen talde bateko kide direnaren sentsazio iluna bizi dutenentzat, beste lurraldeetako gazteekin egindako topaketa hauek, urrunetik datorren, leku guztietan bizi den eta etorkizunari aurrez aurre begiratzen dion elkarte handiko kide izatearen esperientzia ematen diete intuitiboki. Ez ditugu liluratu behar gure gazteak ekitaldi jendetsu hauekin. Baina elkarketa horien bidez sendatu egin behar dugu hutsaren hurrengo direnaren eta zero-muga ilunaren sentsazio hori. Gaztea, etorkizuna duten elkarrekin sartzen da.

Fedearen ospakizun eraberritua

68. Fedea kristau-ospakizunaren bidez eta, bereziki, Eukaristian sendotzen da. Eukaristi ospakizuneari indartsuago eta begi-bistako egiten da, Jesu Kristoren bidez Aitarekin eta geure senideekin estu lotzen gaituen harreman misteriozkoa.

Ospakizun horretan eraberritzen da guri laguntzera datorren Espirituaren dohaina. «Eukaristiaren ospakizun hau, Jesus berpiztuaganako fede-aitorpen pozgarria bada, eta bertan zaintzen badira Hitza biziki entzutea, Kristorekiko batasuna, kredoaren aitoren arduratsua, Jainkoari benetan dei egitea eta senideen arteko elkarte, orduan parrokiaren bizi-kizun erlijioso funtsezkoena bihurtzen da, eta ezarian-ezarian elkarte-estiloa sortzen du, bere sinesmenaz ohartuagoa dena, poziago bizi dena eta ebanjelizatze-testigantza egiteko gaitasun handiagoa duena»³⁰.

Fedearen egiazko ospakizuna ezin da sekula babes-leku edota ihesbide bihurtu eguneroko bizitzako erronka eta zailtasunen aurrean. Gure bizitza bera da, hain zuzen ere, fedean Jainkoarekin eta anai-arrebekin bat egiteko gunea. Gure liturgi ospakizunetan biziago sartu behar ditugu, gaur egun, bertan parte hartzen duten guztien bizi-errealitateak. Jainkoarekiko topaketaren esperientzia horrela bakarrik izango da esanguratsua gure izate osoaren ardatz eta muin bihurturiko federako.

69. Ospakizuna bizitzara hurreratzeko, lagungarri ona da prestaketan eta gauzatzean guztien partehartzea eragitea. Egokia da, baita ere, hizkera, ahozkoa zein sinbolikoa, duina, ulergarria eta esanguratsua erabiltzea. Gainera, zaindu egin behar dira ospakizunetan, Jainkoarekiko eta anai-arrebekiko benetako topaketa pertsonala eragingo duten osagai eta baldintzak.

Elkarteko ospakizunetan partehartze hobea izateko, ezinbestekoa da barkakako eta elkarteko otoitz-esperientziaren hastapenak irakastea. «Bai, anai-arreba maiteok, gure kristau-elkarrekin benetako 'otoitz-eskola' izan behar dute. Kristorekiko topaketa ez da laguntza-eskarian bakarrik adieraziko; beharrezko da esker on, gorespen, gurtza, kontenplazio, entzute eta 'bihotzeko zoramena' sortzerainoko maitasun-bizitasunaren otoitza ere egitea. Otoitz bizia, beraz, baina historiako konpromisotik aldentzen ez duena: bihotza Jainkoaren maitasunari zabalduz, anai-arreben maitasunari ere zabaltzen dio, eta historia Jainkoaren asmoen arabera eratzeko gai egiten gaitu»³¹.

³⁰ *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan*, 1994.ko Garizuma-Pazkorako Pastoral Idazkia, 96. zenb.

³¹ *Novo millennio ineunte*, Joan Paulo II.aren Gutun apostolikoa (2001-I-6), 33. zenb.

AMAIERA

70. Egun batzuk barru egingo dugun Kristoren heriotzaren eta piztueraren ospakizunak bizkor dezala gure Salbatzailea den Jainkoaganako fedea eta lagun diezagula fede hori geure garaikideei helarazten.

Jainkoaren graziari esker lortu dugun Jesu Kristoganako fedea, gure garaiko gizon eta emakume guztiei zuzendutako argia dela, eta gure misioa gizaki horiek Berarekin topo egin dezaten prestatzea dela sinesturik gaudelako esan dizkizuegu hitz hauek.

Konturatzen gara, Jainkoak, gu fedearen dohainaz aberastean, gure esku utzi duela eginkizun handi hori. Ildoak irekitzea eta ondo atondutako lurra prestatzea eskatzen digu, fedearen hazia erne dadin eta fruitu ugari eman dezan. Jakin badakigu, guri, ereitea eta ureztatzea dagokigula, eta Jainkoak berak bakarrik emango diola hazteko behar duen indarra.

Haragi egindako Hitz munduan erein zuen Jesusen ama Maria izan dezagula bidelagun, eta Hitz hori gure garaiko gizon eta emakumeei ezagutzera ematen lagun diezagula. Eta itxaropenaren Jainkoak pozez eta bakez bete dezala zuen fedea.

Iruñea eta Tuterera, Bilbo, Donostia eta Gasteiz,
2001eko martxoaren 11
Garizumako bigarren Igandea

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Joan Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea